

Aralar

Arritzaga bailara

Ondare naturala eta kulturala



Izenburua.

Aralar

Arritzaga bailara

Ondare naturala eta kulturala

Egilea. Jesus Iñurrita Benito
Laguntzaileak. Antton Amundarain
 Bixente Gorostidi
Urtea. 2020

Aurkibidea

Sarrera	3
1. Geologia Aralarren	4
2. Gizaki ehiztaria eta biltzailea	6
3. Artzainak eta trikuharriak	8
4. Artzaintza eta seleak edo saroiak	10
5. Mankomunitatea eta seleak Enerio-Aralarren	12
6. Mitologia eta Erligioa Aralarren	14
7. Buruntzunzingo kobre meategiak. Kobre aroa.	16
8. Buruntzunzingo kobre meategiak. Pernandoren garaikoak.	18
9. Buruntzunzingo kobre meategiak. Azken saiakera.	21
10. Makiak eta estraperloa Aralarren.	24
11. Kirola eta aisialdia Aralarren.	26
12. Artzain ehiztariak Aralarren.	29
13. Artzain baserritarrak Aralarren	31
14. Flora eta fauna Aralarren.	34
15. Nolako Aralar daukagu.	37
16. Nolako Aralar utzi nahi dugu?	40
17. Paisaia eta kultura ibilbidea.	42
Bibliografia	64

Sarrera

Behin Arritzagako bailaran genbiltzala, gazte batzuekin topatu eta, seleetaz eta Aralar mendiko beste gaie-taz hitz egiten hasi ginen. Haien harridura eta ezjakintasuna ikusi ondoren, nik dakizkidan Aralarko istorio labur eta kontu hauek azaltzera animatu nintzen.

Amezketari aldeko Aralar, Arritzaga bailaran sortutako istorioak dira. Amezketako gazteek Aralarren dauka-gun historia, ondare kulturala eta naturalaren altxorra ezagutu araztea du helburu, eta ondoren, denok Ara-lar gehiago maitatzea, errespetatzea eta hobeto zaintzea.

Nahiz hasieran istorio laburrak azaltzea zen helburua, ikusita azkeneko urteetan ondare naturala arriskuan dagoela, kontzientziak esnatzen ere saiatu nahi nuke. Zerbait egin beharrean gaude hurrengo belaunaldiari Aralar txukun bat utzi diezaiegun.

Irakur erreza eta erakargarria izatearren, kapitulu motzetan banatuta dago, argazki edo marrazkiekin lagun-duta. Bertako istorioak ezagutzeko zaletasun handia daukat, eta asko irakurtzen dut. Baina idazle oso trake-tsa naiz, horregatik nire lagunek, Antton Amundarain eta Bixente Gorostidik lagundu didate itxurazko zer-bait ateratzeko.

Zuen gustukoa izatea espero dut eta, hemendik aurrera, guztiok Aralar-maitteagoak izatea.


Bixenteren bertsoak esaten duen bezala:

**Aralarpeko gure
txoko txiki txukun
Amezketari maittea
Amezketari kuttun.
Aurrekoen kontuak
ikasi ditzagun
historia egiten
jarraitu dezagun.**



Arritzaga bailara Sanmartindik

1.- Geologia Aralarren





Aralar ur azpian

Harrigarria bada ere, duela 50 milioi urte, Errioxan Dinosaurioak bizi ziren garaian, Buruntzunzin itsasoko urek estaltzen zuten. Itsaso tropikal baten azpian zegoen. Horren seinale besterik ez dira inguru horretan aurki ditzakegun bibalbioak (almejak), amoniteak (karakol antzekoak), Belemniteak (txibian antzekoak) eta errudistak (ostren antzekoak). Modu berean aipaturiko krustazeo horien fosilak topa daitezke Akelotatik gorako harkaitzetan.



Arritzaga bailaran aurkitutako fosilak




Aralar mendikatea sortzen

Milioika urte horietan zehar, plaka tektonikoen mugimenduaren ondorioz, Europako Plataforma eta Iberiar Penintsulak elkar jo zuten, eta horren ondorioz Pirinio mendiak sortu ziren eta horiekin batera Aralar mendikatea. Hau da, itsaso azpitik lurak gora jo zuen. Uzkuiti azpiko harkaitzaren argazkian garbiago ikus daitezke sortze prozesu hori.



Uzkuiti azpiko harkaitzak




Zuriz, Arritzaga bailaran izan zitekeen glaziarra

Duela hogei mila urte, Glaziazio garaiak zigortu zuen gure ingurua, eta noski Aralar mendikatea, eta dena zuritzeaz gain, hotza nagusitu zen. Elurte haren ondorioz sortu ziren glaziarrak. Buruntzunzingo txabolarako igoeran eta Ama Birjina dagoen harriaren inguruan dauden harriak MORRENAK dira, elurrak bultzaka eraman zituztenen arrastoak. Egin dituzten kalkuluen arabera, Glaziarrek 5 kilometrotik 7ra bitarteko luzera eta 80 metrotik 100era arteko lodiera izan zitezkeen. Europarekin alderatuz, ez omen da hain altuera txikian horrelako glaziar arrastorik.




Buruntzunzin azpiko morrenak



Ur bideak mendi azpian

Aralar esponja erraldoi bat bezalakoa da. Euri urak, poliki-poliki, kareharri gogorak desegiten ditu, eta lur azpira sartzen da. Lur azpian haitzulo ikusgarriak egiten ditu. Badaude 500 metroko sakonera eta 7 kilometroko luzerakoak ere, maila ezberdinetan. Batzuetatik errekek pasatzen dira. Hala etortzen dira Arritzagako ur gehienak Zazpitturri iturrira. Beraz, Aralar oso leku aberatsa da espeleologiarako.



Lur azpiko erreka Aralarren

Rio subteraneo de Ondarreko Zuloa en Aralar.

2. Gizaki ehiztaria eta biltzailea

Duela 10.000 urte, glaziazioaren (hotzaldiaren) ondoren, epelaldia etorri zen eta izoztutako mendi zuriak belarrez, zuhaitzez eta zuhaixkez betetzen joan ziren. Ordura arte bertan bizi izan ziren mamutak, errino-zeroak, lehoiak, panterak, bisonteak eta elur-oreinak, hotz handiagoa bilatu nahian, iparraldera joan ziren.




Bisontea



Haitzuloetako hartza




Lehoia



Orain dela 6.000 urte, gizakiak (gure aitona-amonak) ehiza eginez eta basoko fruituak bilduz bizi ziren. Aralarren eta bere inguruan ere ehiza ugari zen: oreinak, orkatzak, ahuntzak, basurdeak, zaldiak, otsoak eta hartzak. Modu berean, ezkurak, hurrak eta masustak eskura zeuzkaten.

Garai hartatik aurrera, aldaketa handia etorri zen. Gizakia ohartu zen animalia basatiak hezi edo etxekotzen bazituen, eskura izango zuela janaria. Hala, behiak, ardiak eta txerriak hezten hasi zen, eta horrekin batera artzaintza sortu zen. Bere ahalmenak gartzen joan zen neurrian, ikasi zuen gari hazia ereinez gero, fruitua eta uzta lortzen zuela; ezarian-ezarian, bide horretatik nekazaritza sortu zen.



Udako sasoiak aukera ona eskaintzen zien Aralarren bai ehizatzeke, eta baita artzaintza egiteko ere. Neguan, ordea, elurrak belardiak estaltzen zituenean eta hotz gordinak zigortzen zituztenean, behe-aldera jo behar izaten zuten. Hala sortu zen transhumantzia deitzen den fenomeno, hau da, sasoko migrazioa. Hiltzen zirenak, berriz, kobazuloetan edo kanpoan prestatu zituzten trikuharrietan hobiratzen zituzten. Gorputza, Ama lurrari bueltatzen zioten.



Larrondo



Hego Igaratza

Gertatu direnak gertatu, zalantzarik gabe, historiaurreko museo garrantzitsuenetako bat da Aralar. Aurreneko artzain ehiztari haiek 80 hilobi edo trikuharri baino gehiago egin zituzten Aralarren. Gehienak Nafarroa eta Enerio aldean daude, baina gugandik gertu dauzkagu batzuk: bi trikuharri Larrondon (sarreran), bi Ormatzan (Buruntzunzinetik 300 metrora, iparraldera), bi Igaratzan (brujula edo beleta ondoan) eta hileta-haitzuloa Ondarreko langara bidean, Urdanaitz azpiko kobazuloan.




Urdanaitz azpiko haitzuloa


3. Artzainak eta trikuharriak

Trikuharri ospetsuak, gure herriko lehen arkitekturak dira. Hilobi monumentuak

dira, artzain giroko giza taldeek Harri Aroan eta Brontze Aroan eraikiak. Zutik jarritako harri zabal batzuekin hilobi-ganbara bat eratzen zuten, gehienetan ekialdea irekita. Beste harri zabal batekin estaltzen zuten hilobi-ganbara. Bueltan, biribilean, dena harriz eta lurrez estaltzen zuten, “tumulua” izeneko tontor bat osatuz.



Trikuharrien eremuak



Sarlekua eta hanka hezurak ekialdera

Eguzkiak berebiziko garrantzia zuen garai hartako jendearentzat. Eguzkiak ematen zien argia, beroa eta bizia. Eguzki berria (Eguberri) edo neguko solstizioa eta eguzki betea edo udako solstizioa, festa handiekin ospatzen zen, sua (eguzkiaren sinboloa) nonahi piztuz.

Ganbera barruan, hildakoen hankak ekialdera, eta burua mendebaldera jartzen zituzten (berpizten zirenean abiatzeko prest jartzen ote zituzten?). Tumulua, eguzkiaren irudia zen (eguzkiloreen antzekoa). Eta hildakoak babesteko jartzen zuten. Aztertutako jan arrastoak azaldu dira zeramikako ontzietan. Eta su arrastoak ere azaldu dira trikuharri askotan (lur beltza). Hildakoei jana eta sua jartzen zieten (bidaiarako jana eta argia ote ziren?).



Gezurra badirudi ere, inguruko ermita eta elizek ekialdean daukate aldarea eta mendebaldean korua. Entierroetan gorputza hankak ekialdera dituela sartzen dute elizan. Herriko elizan, hilobi bat ireki ezke-ro, buruhezurra elizaren sarrera aldera egongo da eta hankak aldare aldera, ekialdera. Argizaiolak gorputz forma dauka, eta ohitura da burua (erdiko irtegunen handiena) aulki aldera jartzea, eta hankak aldare aldera. Urte batzuk dauzkagunok ezagutu izan dugu igandero opil bat jartzen, argizaiola piztuen ondoan. Jana eskaintzen zitzaion hilari eta beroa eta argia argizaiolaren bidez. 5.000 urte hauetan mantendu da ohitura.



Amezketako elizako hilobiak



Argizaiola



Eguzkilorea

Duela 3.000 urte, Burni Aroan, aldaketa kultural handia gertatu zen. Indoeuropearrek edo zeltek ekarri ote zuten ez dago oso argi, baino hildakoak lurperatu ordez errausten hasi ziren. Eta kristautasuna etorri arte mantendu zuten usadio hura. Gure inguruan orain dela 1200 - 1000 urtera arte.

Gorputza, bizi zen inguruan erretzen zuten eta errautsak, zeramikako ontzi batean jartzen zituzten. Ondoren, tumulu borobil batean edo harrizko zirkulu baten (Cromlech edo mairu-baratze) erdian jartzen zuten ontzia. Orduan ere nabari da, hildakoa babesteko, eguzkiaren sinboloaren barruan jartzen zutela. Gero, eta orain dela gutxi arte, etxea babesteko eguzkilorea jartzen zen sarreran.

Baratze hauetako asko daude Hernanin eta Oiartzun aldean. Gure inguruan ez zen halakorik azaldu orain dela gutxira arte. 2013an Enerioko Ondarren aurkitu zuten bat.



Errautsak eta hezurrak


Enerioko mairu-baratze

4. Artzaintza eta seleak edo sarioiak

Artzaintza eta nekazaritzarekin batera, komunitate sedentarioak sortu ziren. Komunitate edo giza-talde horiek nonbait finkatzeko eta lurraldea antolatzeko, seleak erabili zituzten. Zenbait ikertzailek sele horietan aurkitzen dute baserriaren jatorria. Eta uste dute seleen antolaketatik datorrela gure paisaia, hau da, baserri sakabanatuen jatorria.

Zer da sele, saroi edo korta? Lursail borobila da. Lau-rogeita bi metro inguruko erradioa duen zirkunferentzia formako lursaila (Mendikoek 82 metroko erradioa zuten. Beheko larreetakoek, bikoitza: 164metro). Erdian hauts-harria deitzen zaion harrizko mugarria du. Gehienetan beste lau mugarri izaten zituen zirkulu bueltan: hegoa, iparra, ekia eta mendebalde.

Joxe Migel Barandiarenek esaten zuen bezala, kromletxa edo baratza gogora arazten digute. Biak ere borobilak ziren, kromletxaren erdian gorputz errautsak sartzen zituzten bezala, seleen erdiko mugarriari, hauts-harria deitzen zitzaion. Seleen erdian, artzainak sua egiten zuen, bera eta ganadua babesteko, berotu eta animalia basatiak urruntzeko. Surtako hautsengatik deituko zioten hauts-harri seleen mugarriari. Hemen ere, babes neurri bezala, eguzkiaren irudia azaltzen zaigu, hau da, borobila, eta suarekin, argia eta beroa.



12 korapiloko selea



Aurreneko jabetza pribatua markatzen duen neurria da selea. Herri-lurra edo lur komunitarioaren barruan kokatzen ziren seleak. Artzain bakoitzak bere saroi izaten zuen. Egunez, ganadua bertan jetzi, eta gero komunitateko larreetara eramaten zituen aziendak. Gauetan, saroiari sartzen zituzten babesean egoteko. Gauez, ganadua saroi barruan sartzeri behartuta zeuden, izan ere, herri-lurretan ganadua topatu ezker, bahitzeko edo harrapatzeko baime-na baitzegoen.

Gure inguruan, saroi horiek bi neurritakoak ziren. Udakoak, mendian 6 korapilokoak ziren (82 metroko erradioa). Eta negukoak, hau da, behekoak, 12 korapilokoak (164 metroko erradioa). Behekoak handiagoak ziren ganadua denbora gehiagoan egoten zelako beheran. Eta askotan, denborarekin, aurreneko txabola, artzaina edo nekazaria babesteko zena, baserri bihurtzen zen.

Seleen antolaketa ezaguna zen Burdin Aroan. Eta gizaldi askotan mantendu zen. Enerioko Ondarren, saroi batean, Burdin Aroko aztarnak aurkitu zituzten: historiaurreko artzainen kokapena zen.




Desarrollo de los trabajos arqueológicos en el austarri del sel de Ondarre, cuyo empleo se remonta a la época prehistórica.

Enerio–Aralarko komunitatea sortu aurretik (1.400 urtean) Aralarren 100 bat saroi bazeuden. Saroi bakoitzean bi edo hiru txabola egoten ziren. Jautxoena ziren batzuk, Jauregi Handikoek 11 zituzten. Lazkaoko Jauregikoek 14. Orreagako fraideek, Oñatiko jauntxoaren dohaintzari esker, 23 zituzten. Zaldibiako Urte-sabel jaunak 5.

SELES PERTENECIENTES A AMEZKETA (21)			
Denominación del sel			Topónimo actual
Año 1410	Año 1772	Año 1797	
Eçiçaray	Ezizeregui	Eiceregui	Etitzegi
Oreynarri	Orenarri	Oyenarri	Oanarri
Eçiça Hondarra	Eziza ondarra	Eceiza Ondarra	Ondarsoro
Eçiçaydoya	Eziza idola	Eceizadoya	Etitze
Elordia	Elordia	Elordia	Elordi
Aguynaga atea	Aguinagatea	Aguinaga atea	Arinate
Hollarça beheracoa	Ollarza beracoa	Olazaberaicoa	Ollartza Behekoa
Hollarça garaycoa	Ollarza garaicoa	Olazagaraicoa	Ollartza Goikoa
Burançi	Burunzuzin	Burunzuzin	Buruntzunzin
Aguynurenaga	Aguingurenaga	Aguingurenaga	
Hormaça	Ormaza	Ormazar	Ormatza
Latosa	Latosa	Latosa	Latosa
Pardelus Cobaaurrea	Fardelus coaurrea	Fardelus Coaurrea	Pardeluts
Mauruaçaricołaça	Mauruazariolaza	Marua Calizolaza	Maizolatx
Alçolaça	Azolaza	Olazalaza	Atzolatx
Leyçaoz beheracoa	Leizaoz beracoa	Lizaurgaraicoa	Lizaotzko saroi
Leyçaoz garaycoa	Leizaoz garaicoa	Lizauberaicoa	Lizaotzko ordeka
Urscoytia	Uscoitia	Lizagarai	Uzkuiti?
	Fardelus iturrialdea (*)		
	Latosa arcarai (*)		
	Alzolazaiolaza (*)		Atzolatx

Gainontzeko seleak inguruko herrien jabetza ziren. Hala, Ordiziak bere auzokideekin, 3 zituen. Orendai-nek, Ikaztegietak eta Baliarrainek 3, Abaltzisketak 16 eta Amezketak 21. Amezketako hasierako seleetako hauts-harriak desagertu egin dira, beraz, ezin denak zehatz-mehatz ezagutu. Batzuk euren izenengatik kokatu ditzakegu gutxi gorabehera: Elordi, Arinate, Buruntzunzin, Latosa, Pardeluts, Etitzegi ... baina beste batzuen ezinezkoa zaigu. Ona izango litzateke denen kokapena bilatu, eta katalogatzeko lana egitea.



5. Mankomunitatea eta seleak Enerio-Aralarren

1400. urtean sortu zen gatazka Enerio-Aralarren. Ordura arte, Aralar inguruko 15 herrietako biztanleek askatasunez erabiltzen zituzten hango larreak. 1.400. urtean, ordea, Jauregi Handiko Ojer Amezketari eman zizkion sail haiek opari Enrique III. Gaztelako Erregek. Zergatik eta erregeri egindako mesede batzuen truke. Eztabaida ugariren ondoren, 1409an konpondu zen auzia. Horretarako, Enerio-Aralar mankomunitatea sortu zen, eta Juan de Amezqueta, Jauregi Handikoari, 1.400 urrezko florin eman behar izan zizkieten.

Herri guztiek etzuten berdin ordaindu. Erabilera araberako ordainketa egin zuten. Amezketak beti erabili izan ditu Txindoki, Ganbo eta Igaratzatik Nafarroako mugara arteko lurrak. Leku horretan zeuden hasierako 21 seleak, eta geroagoko 11 Jauregi Handirenak. Amezketako Batasunak (Bozue Mayor) 5 herrirekin, erdia ordaindu zuen eta Ordiziako Batasunak (Bozue Menor) 10 herrirekin, beste erdia. Amezketak eta Abaltzisketak ordaindu zuten gehien: bakoitzak % 16,67.

PORCENTAJE DE PARTICIPACIÓN DE CADA POBLACIÓN EN LA MANCOMUNIDAD			
UNION DE AMEZKETA		UNION DE VILAFRANCA	
Población	Porcentaje (%)	Población	Porcentaje (%)
Amezqueta	16'67	Lazkao	7'15
Abaltzisketa	16'67	Ordizia	5'35
Orendain	8'34	Ataun	5'35
Ikaztegieta	4'16	Beasain	5'35
Baliarrain	4'16	Gaintza	5'35
		Itsasondo	5'35
		Legorreta	5'35
		Zaldibia	5'35
		Alzaga	3'60
		Arama	1'80
TOTAL	50		50

Artzainen kokapena eta kudeaketa lehengo moduan mantendu zen: seleen arabera. Herrikoetan, udalak ematen zien herritarrei seleak erabiltzeko baimena. Jauntxoek eta Orreagako fraideek, etekina ateratzeko, artzain maizterra jartzen zuten, eta artzainak morroiak ganadua zaintzeko. Dena den, artzain edo ganadu txabolek seleen barruan egon behar zuten derrigor.

Hasieran, ganadu gehienak behiak eta txekorrak ziren, eta gutxiago txerriak eta ardiak. Basoen hedapena askoz handiagoa zenez, behientzat eta txerrientzat oso egokiak ziren larreak. Izan ere, horiek oso gogoko zituzten zuhaitz azpiko belarra eta ezkurra. Gerora, ordea, ikazkinen, artzainen eta meategien eraginez, baso eremu handiak desagertu ziren, eta belardiak ugaritu ziren. Horrek ekarri zuen ardientzako larre ho-beak sortzea eta hauen kopurua handitzea.



Garai batean, hartzak eta otsoak sarraski handiak egiten zituzten mendian. Horri aurre egiteko, Mankomunitateko herriek mendeetan dirua ematen zieten horiek akabatzen zituztenei. Adibidez, 1600. urtean, hartz bat akabatzeagatik 6 dukat zen ordaina, eta otso bakoitzarengatik 2 dukat. Aralarren azkeneko hartza 1735ean akabatu zuten: 87 kilo pisatu zituen larrua kenduta. Azkeneko otsoa, berriz, 1887 urte inguruan.

Orreagako seleek sortu zuten gatazka handiena Aralarren. Hasieran Oñatiko jauntxoarenak ziren, Beltran de Gebararenak. Eta bere bekatuak barkatzeko ('por mi alma') Orreagako fraideei eman zizkien. Hogeita hiru sele horiek Enerio eta Igaratza artean zeuden. Urte batzuetan, errenta baten truke, Ordiziak usiatu zituen, baina ordainketa arazoengatik fraide horiek Amezketari saldu zizkioten 1.717an. Orduan hasi ziren urte gatazkatsuak, ganadu bahiketak eta borrokak. Mankomunitatea desgiteko puntuan egon zen. 1792ko iraila izan zen okerreana. Amezetatik 100 bat gizonetzko makil eta arkabuzekin Igaratza inguruko Beaskin selera joan ziren. Han borroka eta tiroak izan ziren. Zaurituak ere bai. Azkenean, Ordiziako Batasunekoek 14 gizon bahitu eta Amezketako kartzelan sartu zituzten. Bertan zeuden, Beasaingo alkatea eta eskribaua, eta Ataungo alkatea. 1797an konpondu zen gatazka, Amezketari 40.000 errealeman eman zizkioten eta, seleak mankomunitatearen esku geratu ziren.



1992an, azkenetako feria Perileku selean

Una de las últimas reuniones de pastores en la zona de Perileku durante la feria que anualmente se celebraba en la zona (junio de 1922).

1902an, Jauregi Handiko seleak, garai hartan Gongora markesa zen Joaquin Ezpeletari erosi zizkion Amezketak, 250 pezeta ordainduta. Baita San Martin ermita ere, beste 250 pezetaren truke. Hauek dira erositako seleak: Etizei, Etize azpi, Buruntzunin, Arritzaga, Zotaleta, Gezolaza, Aintzin, Egibide, Pardeluts, Igaratza eta Beitegi edo Perileku.



Etizegi azpia



Etizegi edo Zalegi



Zotaleta edo Salin



Kitzolat edo Gereziolatza



Sarobe baten mugaria

AMEZKETAKO SAROBEAK ARALARREN

XX. mendearen hasieran, Amezketako Udalak hamaika lur zati edo sarobe erosi zituen Aralarko lur amankomunetan.

Arritzagako haranaren inguruetan kokatzen dira eta, noizbehinka, artzai txabolak aurkitu daitezke bertan.

Hamaika sarobe hauek lotzen dituen ibilaldia, Ondarreko lanatik gora, benetan ederra da.



Arritzaga



Buruntzunin



Aintzei



Egibide edo Mendikarte



Beitegi edo Olazabal



Lizardi, Pardeluts edo Gorostiaga



Igaratza

6. Mitologia eta Erligioa Aralarren

Lurra, Euskal Herriko herri askotan, Eguzkiaren eta Ilargiaren ama da. Ama Lurra da, baita ere, hildakoen arimen ohiko bizilekua. Uste denez, Eguzkia eta Ilargia emakumezko jainkosak dira, Lurraren alabak. Egunero, zeruan barrena beren ibilaldia egin ondoren, haren altzora joaten dira lotara.

Eguzkilorea, Eguzkiaren sinbolotzat hartzen dute, bere irudia da, ordezkoa. Etxe sarrerako atean jarrita, eguzkiaren ahalmen ezkutu berberak ditu: espiritu gaiztoak, sorginak eta lamiak uxatzea. Ekaitzak eta tximistak sortzen dituzten espiritu gaitz-sortzaileei ere etxean sartzea galarazten die.



Eguzkilorea etxeko sarreran



Argizaiolak hilobi gainetan

Ilargi izenak, hilen argia esan nahi du, eta hori ondo lotzen da Ilargiak hilen arimei argi egiten diela dioen sinestearekin. Bada beste uste bat, eta pentsatzen da, 'argiolan lotutako argizariak', hilobi baten gainean piztu eta, han hobiratutako arbasoei argi egiten diela.

Mari, emakumezko jainkosa bat da, eta lurpeko bizilekuetan egon ohi da. Pertsonak errespetatzea nahi du Marik, elkarki laguntzea eta emandako hitza betetzeko agintzen du. Gezurra, lapurreta, handikeria eta harrokeria gaitzetsi egiten ditu. Mariren bizilekua ikustera doana ez daiteke eseri, zuka hitz egin behar dio eta leku hartatik sartu den bezala irten behar du, hau da, barrura begira sartu baldin bada, harantz begira irten.

Mari, bizilekuz aldatu egiten da. Horrela, Txindokiko Marizulotik Anbotora doanean, lau zaldik daramaten gurdi batean eserita joaten da.



Marizulo

Amezketan gertatu omen zen pasadizo zahar batek hala dio: Irarei baserrikoei behi gorri bat galdu zitzaien, eta amak agindu zion bere alaba Mari gazteari bila zezala behia. Baina hark ez zuen nahi izan. Orduan amak madarikatu egin zuen, esanez: 'ez baden ekartzen, deabruak eramango al hau, ba'. Alaba atera zen behi bila. Zelaian behi gorri bat ikusi zuen. Gazteak uste zuen beren behia zela, eta gerturatu zenean isatsetik heldu zion. Marizuloko Mari zen, ordea, behi itxurako hura, eta bere lurpeko bizi lekura eraman zuen.

Mariren maitalea Herensuge da, lur azpian bizi da eta aldian behin ateratzen dira biak kobazulotik, ekaitza eta tximista tartean. Honen ondorioz euria egiten du eta lurra aberasten da.

Aralarren fama handiko Herensugearen kobazuloa, San Migelekoa da. Kontu zaharrek diote, Goñiko Teodosio jaun zalduna, 707an, Butroneko Konstanzarekin ezkondu berritan, moroen kontra egiteko gerrara joan behar izan zuela. Konstanza, Teodosioren gurasoekin gelditu zen etxean eta ohe nagusia beraiei utzi zien.

Teodosio, guda irabazi ondoren, bere gaztelura harro zetorrela, etsaia gerturatu zitzaion, gizon on baten itxurarekin, eta bere andreak morroi batekin engainatzen zuela esan zion. Teodosio haserre bizian sartu zen etxean goizaldera, eta bere ohean zeuden bi gorputzak zulatu zituen ezpatarekin. Ondoren, ordea, konturatu zen bere gurasok zirela.

Aita-santuak, penitentzi modura, kate batzuekin lotzeko eskatu zion, eta kateak haustean lortuko zuela barkamena. Zazpi urtez ibili zen Teodosio Aralarren kateak arrastaka zituela. Halako batean, Herensugea kobazulotik atera zitzaion, eta Teodosiok San Migeli laguntza eskatu zion. Gurutze gainean zuela Aingerua azaldu zen eta Herensugea akabatuz Teodosiok zeramatzan kateak hautsi zizkion. Esker onez, Teodosiok bere andrearen laguntzarekin, San Migel ermita eraiki zuen. Urtero, abuztuko bigarren igandean ekartzen dute Igaratzara San Migelen irudia.



San Migel eta Teodosioren kateak



Kanposantuaren ondoko
Amabirjin harria



Amabirjin harria

Beste kontakizun batek dio Amabirjina Amezketan izan zela eta aurreneko hanka arrastoa kanposantu ondoan dagoen harrian jarri zuela. Eta bera babesteko estalpe bat eskatu ziola Loidiko gazte bati, baina etxekeok sinetsi ez zutenez, bigarren hanka arrastoa Igaratza bidean egin zuen, Amabirjina harrian. Eta gero Arantzazura joan zen.

Elizak, Herensugea deabru bihurtu zuen, eta Mari, Amabirjina. Modu berean, Eguberria, Jesukristoren jaiotza izatera pasa zuten eta Eguzkiaren babes sinbolikoen (Eguzkilorea, Lauburua, ..) ordez, Kristoren gurutzea jarri zuten.



Oidui txabolako ate gaina

7. Buruntzunzingo kobre meategiak. Kobre aroa.

Gure arbasoek, artzainak eta ehiztariak, Aralarren trikuharriak egiteaz gain, Eguzki, Ilargi edo Mari-ren omenez egiten zituzten errituetan euren gorputzak margotzen zituzten. Bazuten hartarako aukera, izan ere, Buruntzunzin inguruan mineral ugari baitzegoen: distiratsuak (pirita eta kalkopirita), urdinak (azurita), berdeak (malakita) edo gorriak (oligisto). Mineralak haustu, koipeekin nahastu eta gorputzak margotuko zituzten.

Malaquita-Azurita



Azurita eta malakita haustuta

Garai haietan, defendatzeko, ehizarako edo lanerako, aizkora, lantzak edo geziak erabiltzen zituzten. Eguurrezkoak zituzten heldulekuak. Eta puntak, berriz, harrizko edo hezurrezkoak. Horren ondorioz, errez hausten edo kamusten ziren eta konponbide zaila zuten.

Halako batean, Europa erdi aldetik Zeltak azaldu ziren, eta haiek ezagutzen zituzten kobrea lortzeko teknikak. Jakin badakigu Malakita eta Azurita asko zegoela Buruntzunzinen, eta horiek kobre gehien duten mineralak izanik, Zeltek ikatz egurrekin nahastu, lur ontzi batean sartu eta berotuz kobrea likidotua ateratzen zuten (800 °C). Ondoren, egin nahi zuten tresnaren harrizko moldeak egiten zituzten eta likido bihurtutako kobrea bertara isuriz, harrizko tresnen ordeztasunaz, askoz ere gogorragoak ziren kobrezkoak lortzen zituzten. Era berean, nekezago hausten ziren eta zorrozten errazagoak ziren.



Oso garrantzitsua izan zen teknika berri hura. Aro aldaketa ekarri zuen, konkretuki Harri Arotik Metal Aroa egin zuen jauzi gizakiak. Eta teknologia berrietan aurrera egin ahala, aro berriak etorri ziren: Kobre aroa, Brontze aroa eta Burdin Aroa.



Aurreko zangan zeuden meategiko aztarnak

Buruntzunzinen orain dela 2.500 eta 3.800 urteko meategi aztarnak aurkitu dituzte. Bertan, urte askotan egindako lanak ikus daitezke. Adibidez, Uakorri azpiko harkaitz tartean, zanga luze batzuk daude, bat 100 metro luzerakoa, gutxi gorabehera 6 metro sakonekoak eta 4 metro zabalekoak, eskuzko tresnekin hustutakoak eta malakita eta azurita arrastoak ageri dira.



Oreinaren adarra minerala lortzeko

Beherago, lur azpian egindako galeria edo tunel moduko zuloak daude. Hirurogeita hamar metro duen batean, behiaren omoplato bat, oreinaren adar bat eta harri borobilak aurkitu dira. Omoplatoak palaren funtzioa beteko zuen, oreinaren adarrek eta harri borobilek, harrizko mazoaren laguntzaz, puntzoiaren funtzioa beteko zuten.

Lur azpian sartu gabe, Arritzagatik Buruntzunzin bidean, goialdean, harkaitzean zuloak ikusten dira, suaren bidez txigortuak. Batean, urteetan harkaitzari minerala kendu ondoren sortutako zuloan babesak aurkituko zuten eta bizitoki bilakatu. Hori adierazten dute bertan aurkitutako zeramikazko aztarnek. Zulo horren ondoan, brontze aroko bi meategi zulo ere aurkitu dituzte. Bertan lurrezko labe txiki bat, kobrezko lingote txiki bat eta eskaintzak egiteko ontzi bat azaldu dira.

Milaka urteetan zehar, bolbora azaldu aurretik, minerala harkaitzetik ateratzeko sua egiten zuten, harkaitza txigortuz. Horri 'Torrefaccion' deitzen zaio. Beroaren eraginez, karearen antzera, harkaitza eta minerala bigundu egiten ziren. Eta ondoren, adar bat, hezur bat edo egurrezko puntzoi bat harrizko mazo batekin kolpatuz askatzen zuten minerala.


Aztarna hauek aurkitu dituen Txomin Ugaldek esaten duenez, horrelako teknologiarekin hainbeste milaka metro kubiko mineral mendiari kentzeko, eta suarekin labeetan urtzeko, egur pila eta jende pila behar ko zen. Behar horrek eraginda, bertako eta inguruko baso guztiak desagertu ziren. Buruntzunzinen, bere gora behearekin baina, milaka urtetan, meategi aktibitate izugarria izango zen. Kontuan hartu, jende asko behar zela prozesua burutzeko: basoan egurra moztu, meategira garraiatu, minerala zegoen harkaitzaren aurrean sua egin, puntzoiarekin minerala askatu, hori labe aurrera garraiatu eta harrizko mazoekin txikitu, labeetan sartu eta egur ikatzekin nahastu, sua eman, labea zaindu eta ateratzen zen kobrea moldeetan sartu, eta lortutako kobrezko tresnak menditik jaitsi eta banatu. Lan horietan ari zirenei jana eta arropa ere eman beharko zitzaizkien.



Zeramika eta torrefakzioaren aztarnak aurkitu dituzten gunea

Eragin handia izango zuen Amezketarrentzat, askok izango zuten aukera lan haietan aritzeko, eta hori urte asko eta askotan zehar.

8. Buruntzunzingo kobre meategiak. Pernandoren garai-koak.



Buruntzunzinen Erromtar garaiko eta Erdi Aroko aztarnak ere aurkitu dituzte. Bere gora beherekin, baina azkeneko 4.000 urte hauetan ustiatua izango da Buruntzunzin ingurua. Jesus Elosegiren "Las Minas de Cobre del Aralar" liburuak, gehien-gehiena 1732tik 1804ra arteko informazioa eman digu. Liburuan dioen bezala, Argaña abizeneko apaiz batek kalkopirita ugari aurkitu zuen Buruntzunzinen. Eta Petriati alemana eta beste sozio batzuekin kobrea lortzeko meategia ustiatzen hasi ziren 1732an.



Mina-zulo ugari egin zituzten. Gehienak, lehendik zeuden meategi aztarnetatik abiatu eta kalkopirita zainei, edo mineral zainari jarraituz zulatzen zituzten. Zulo haietako bat, Santa Rosa, oraindik irekita dago, Arritzaga errekaaren ondoan.

Bolbora manciatzeko teknologia bazeukaten, eta erabiltzen zuten. Minerala harritik libratzeko, barrena edo palankekin 15 bat zentimetroko zuloak egiten zituzten harkaitzean. Gero, metxa barruan zela, bolboraz bete, estutu eta lurrarekin tapatzen zuten. Metxak elkarri lotu eta sua ematen zioten. Leherketa ondoren, zuloa handitzen zen eta, barrena edo pikatxoiarekin, minerala eta harria apartatzen zituzten.

Mina-zuloan, ikusteko, bale koipezko linternak erabiltzen zituzten.

Mineralak bokardera eramaten zuten. Han matxakak - mazoa ere esaten zioten - minerala txikitzen zuen. Matxaka urak mugitzen zuen. Bokardea Arritzagatik Buruntzunzin aldera zegoen, gertu. Ondoko iturriari Bokarde iturria esaten zaio.




Txikitu ondoren, minerala bi labetara eramaten zuten. Beheko labeari Olaberri esaten zioten, oraingo museo etxearen aurrean zegoen. Bestea Arritzagako iturri atzean. Gerora, Pardeluts aldera 300 bat metro-ra, hirugarren labea egin zuten. Labean egur ikatza-ekin egiten zuten sua, hauspo haizez lagunduta. Hauspoak eta bokardea urak mugitzen zituen, erroteran errotarriak bezala.

Egur ikatza Etxarri Aranatz eta Uharte Arakildik ekartzen zuten. Garai hartarako ez zen baso handirik izango Buruntzunzin aldean. Igaratzatik meategira gurdi bidea egin zuten ikatza garraiatzeko. Amabirjin harritik behera, eskuin aldean ikus daitezke oraindik bide haren aztarnak.

Labeetatik ateratzen zen kobrea, lingoteetan mando gainean jarri eta mandoak ilaran, Akelotatik behera eramaten zuten Bilbo edo Segoviako labeetara, armak edo ontziak egiteko.



72 urteko ustialdi hartan gora behera handiak izan ziren. Urte txarretan sozietatea bitan banatu zen. Garairik onenak Kristobal Fat alemanak eta Joan Bautista Urreta alegiarrak kudeatutakoak izan ziren. Urreta hura Amezketako alkate izan zen, eta Urretaenea -Bixentenea albergea - eraiki zuen 1790an. Garai hartan, Buruntzunzin eta Arritzagan 300 bat meatzari ari ziren lanean, eta 160 bat mando erabiltzen zituzten garraiorako. Mina zuloan aritzen ziren langileez gain, behar izaten zituzten labezainak, arotzak, harginak, errementariak eta mandazain ugari, ikatza, minerala eta kobrea garraiatzeko. Egunean 12 ordu aritzen ziren lanean, asteko sei egunetan. Goiz, eguerdi eta gau, baba eta ogia jaten zuten. Igan-deetan urdaia ere ematen zieten. Arritzagan herri txiki bat sortu zen garai hartan. Eliza, bi taberna eta okindegia zeuden. Apaiza eta zirujaua ere han bizi ziren. Meatzariak beraien familiekin bizi ziren. Gazteek ere bertan egiten zuten lan, eta jaio ere asko jaio ziren han.



Arritzaga nolako herrixka izan zitekeen irudiak



Bokarde gunea

Zerk ekarri zuen minen itxiera garai hartan? Batetik mina zuloetatik ura kanpora ponpatzeko arazoa zeukaten, eta bigarrena, eta nagusia: errentagarritasunik eza.




Arritzaga

Lau lekutan ikus daitezke garai hartako aztarnak. Behetik gora, lehenengoa museo etxea dagoen ondoan. Bigarrena Arritzagara iritsi aurretik, bokardea egon zen lekua. Mineral aztarnak ere badaude han. Hirugarrena Arritzagan: labeko eskoria arrasto ugari. Eta laugarrena, errekatik gora, 300 bat metrora, azkeneko labeak. Lau leku hauetan ur kanalen aztarnak daude.



Azkeneko labeak



Aralar meategien krokis topografikoa.

Martin Joxe Eizagirre (Zaldibia 1883-11-12) lur-neurtzaileak egina.

Amezketako Udal Artxibategian dago jasota.


9. Buruntzunzingo kobre meategiak. Azken saiakera.

Meategien ustiaketan gora-behera handienak gerrek sortzen zituzten. Gerra garaian asko igotzen zen kobrea eta beste metalen eskea, eta baita prezioa ere. Egoera haietan meategiak errentagarri bihurtzen ziren, eta ustiatzen hasten ziren. Gerrak bukatutakoan, prezioak behera egiten zuen. Ustiaketa gastuek lehengoan jarraitzen zuten eta, errentagarritasunik ezak, meategiak ixtera behartzen zituen. Fernando Bengoetxearen (Fernando Amezketa) garaitik aurreko mendearen erdira arte gerra asko izan ziren: hiru gerra karlista, bi mundu gerra eta gerra zibila. Eta gerra haiek mugimendu handiak eragin zituzten Buruntzun meategian. Asturiana de Minasek egin zuen lanik gehien, 1.850etik 1.880ra arte, 14.000 tona mineral atera zituzten. Azkeneko saiakera Juan Tomas Rementeria bizkaitarrak hasi zuen, 1900. urtean. Eta haren seme eta bilobek jarraitu zuten 1966ra arte.

Garai haietan minerala jaisten zuten Buruntzunindik, kobrea lortzeko labeak behar zuen ikatz pila mendira eramatea asko kostatzen zen eta.

Minerala lortzeko prozesua Pernandoren garaikoa bezalatsukoa zen, baina teknologia berriekin. Hala, harria zulatzeko, barrena edo palankaren orde, mailu pneumatikoak erabiltzen zituzten. Diesel motor baten indarrak mugitzen zuen mina zulotik kanpo zegoen konpresorea. Konpresoreak airea konprimitzen zuen, eta hodian barrena joaten zen mina barrura, han mailua astintzeko. Bolboraren lekuan dinamita erabiltzen zuten, eztanda hobeto kontrolatu eta lana seguruago egiteko. Baina, hala ere, gertatzen ziren istripuak. Minerala txikitzeko matxaka izeneko makina erabiltzen zuten. Hasieran uraren indarrak mugitzen zuen makina. Garai hartan, diesel motorrak. Minerala txikitu ondoren, zakueta sartu, mando gainean jarri eta Akelotatik behera jaisten zuten.





1950. hamarkadan, minak errentagarri izaten jarraitzeko gastuak jaitsi beharra zegoen. Garraiorako mando eta mandazain asko behar izaten zituzten. Haien ordez bagoneta sistema jarri zuten. Mina zulotik minerala ateratzeko karrilak eta bagonetak jarri zituzten. Matxakatik pasa ondoren, aireko bagonetetan (baldeetan) jartzen zuten minerala, eta handik, kablean behera, erreka ondoko biltegi edo karga-lekura jaisten zuten. Eta handik, beharraren arabera Amezketara jaisten zuten minerala, bagonetetan, airean. Egurrezko dorreen gainean zihoan kablean, Akelotako sakanean barrena. Hala, biltegitik Labadero esaten genion lekura jaisten zen minerala. Arrantso baserriaren parean dago labaderoa. Han biltegi handi bat, minerala garbitzeko askak eta laborategi bat zegoen. Garraio mota hura egiteko, ez zegoen indarraren beharrik. Goitik behera karga eramaten zuen, eta bere pisuarekin mugitzen zen.



Kableak, baldeak zintzilikatzeko, Amezketaraino joaten ziren



Eskubiko mandoaren gainean Joakin Sarasola. Ondoan, zutik, Joxe Mari Goñi. Erdian Jesus Gonzalez beste galego batzuekin. Jesus Ameketan ezkondu zen.



Ezkerrean Inazio Galartza eta Bittor Artola eskuinean, minetako lanetan

Hamarkada hartan 30 bat kanpoko langile izan ziren hemen. Gehienak galegoak. Artzainak ere asko ibiltzen ziren minetako lanetan. Soldata bat jasotzen zuten eta ondo etortzen zitzairen. Amezketar askoren tzat aldaketa ekonomiko handia ekarri zuen. Dendetan jakiak eta bestelako produktuak zakuka saltzen zituzten. Garraioa herritarrek egiten zuten, eta gazte batzuk hartan aritu ziren lanean.



Martzelino Benito ezkerrean, Fernando Artola (Altzo) eskuinean eta tekniko filipinarra erdian. Atzean goiko kargadorea matxakarekin.



Mina zuloan Bernardo eta Joxe Mari Zuriarrai-nekin. Eskuetan karburozko linternak

Minetako langileak oraingo Buruntzunzin elkarteko eraikinean bizitzen ziren. Ez zeukaten argi-indarririk eta karburozko linterna erabiltzen zuten. Karburoak urarekin nahastean ateratzen zen gasa errez sortzen zuen argia. Dinamita biltegia edo bolbora-biltegia, aterpea dagoen txabolan zegoen.

Izugarrizko inbertsioa egin zuten guzti hartarako, baina bi kamioi bete mineral besterik ez zuten jaitsi; mineralaren prezioa, berriz ere, asko jaitsi zelako.

Buruntzunzin azpian, artean ere, mineral asko zegoela jakinda, 1966an beste saiakera bat egin zuten, azkenean. Minerala errazago ateratzeko asmotan, Nafarroako Gaintzatik Buruntzunzin azpira arte 2 kilometroko zuloa egin zuten. Lan hartan ari zirela, Txileko Atakamako basamortuan mineral ugari aurkitu zuten, eta lur gainean. Hondeamakinekin zuzenean karga zezaketen kamioietara. Prezioak erabat jaitsi ziren eta Buruntzunzingo ustiaketa han bukatu zen.

Garai hartako arrasto ugari ageri ziren Buruntzunzin eta inguruetan. Eta Konstan Sagastumek proiektatutako museo txiki bat egiteko eskatu zitzaion Mankomunitateari. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultur arloko eragileen laguntzari esker egin zen museoa.



Museo txikia, kanpotik eta barrutik

10. Makiak eta estraperloa Aralarren.

Franco, militar jeneralak, bere soldaduekin Espainiako gobernu errepublikarraren aurka egin zuen 1936an. Kolpe militar haren ondorioz, gerra zibila sortu zuen eta irabazi ere bai 1939an. Segidan, faxismoa, errepresioa eta diktadura erabiliz gobernatu zuen. Bere aldekoak ez zirenak, desjabetu, kartzelaratu, erbesteratu edo fusilatu egin zituen. Milaka eta milaka utzi zituzten fusilatuta kuneta bazterretan, beren familien agurrik gabe. Oraindik asko daude bere hartantxe.

Garaitsu hartan beste faxista bat azaldu zen Alemanian, Hitler izenekoa. Arrazista eta diktadorea zen, eta Europa guztian agindu nahi zuen. Juduen arraza bukatu nahi izan zuen. Milaka hil zituen gas-kameretan, emakume eta haurrak barne. Beste herrialdeak inbaditzen hasi zen 1940an, eta orduan sortu zen bigarren mundu gerra. Ia Europa guztia bereganatu zuen. Azkenean indar aliatuek: Ingalaterra, Ameriketako Estatu Batuak eta Errusiarren artean (tartean euskaldun eta espainiar erbesteratuak) menderatu zuten 1945ean.

Gerra bukatu ondoren, euskaldun eta espainiar erbesteratuek, **Makiak** izeneko taldea sortu zuten, faxismoaren aurkako nazioarteko brigadek lagunduta. Francoren aurka ekintza armatuak egiten hasi ziren. Ekintza haiekin, aliatuek, Francoren aurka borrokan hastea nahi zuten. Frankisten erregimen faxista menderatu eta errepublika berriz jartzea zen haien helburua.

Pirinioak eta Aralar aproposak ziren gordeleku edo pasabide moduan. Artzain askok ikusi eta topatu zituzten Maki gerrillari armatuak, talde txikietan, 1945etik 1951ra bitartean. Babesteko lekuak, jana edo informazioa eskatzen zuten.

Anduitzko bordan 1945eko udaberrian gertatu zena ez zuten artxiboetan erregistratu. Dakiguna



Anduitzko borda



Anduitzko bordaren ate gainean, bala tiroen arrastoak

ahoz ahokoa da eta honela dio: Mendian ze-biltzan lau maki armatuk artzain bati lo egiteko babes lekua eskatu zioten, eta artzainak Anduitzko borda eskaini zien. Artzainak beste bati esan, eta hark herriko alkateari pasa zion kontua. Alkateak, Francoren garaian, zegokion bezala, Goardia Zibilari pasa zion informazioa. Hurrengo egunean, Goardia Zibilaren patruila Anduitzko bordaren ondoan zegoen. Fusilak tiroka hasi ziren eta bi maki hil zituzten, beste bat zauritu, eta azkenekoa errenditu egin zen. Azken haiek kartzelan sartu zituzten, eta hildakoak kanposantuan lurperatu zituzten. Haiek ere ez zuten izan beren familien agurrik. Demokrazia eta askatasunaren alde bizia eman zuten. Errespetua eta ohorea merezi dituzte.

Anduitz bordako ate ondoan, oraindik ikusten dira balek egindako zuloak.

1948ko irailean, nafar aldeko mailoetan erori zen beste maki bat. Bere lagun Frans Joseph-ek laguntza eskatu zuen Intza herrian. Eta jaitsi zuten, baino hil egin zen. Hans Harge poloniarra zen eta 23 urte zituen.

Gerra zibilaren ondoren, Francok, Gipuzkoa eta Bizkaia zigortu zituen gerran bere aurka egin zutelako: foruak kendu zizkien. Egoera larria zen. askatasunik eza, errepresioa eta herritarren artean gosete handia. Jan gutxi zegoen, eta zegoena garesti. Irina, olio, azukrea edo ardoa lortzeko Nafarroa aldera joan beharra zegoen. Nahiz Zaraten eta Igaratzan Mikeleteak egon, amezketar asko ingurutik pasatzen ziren jan gaiak ekarriz, Betelu eta Azkaratetik edo Exarri eta Uharte Arakildik. Hau zen **estraperloa**.

1949ko abenduaren 10ean, Aintziarbeko Inaxio Agirrezabala Nafarroako Huarte Arakilera joan zen beste hiru amezketarrekin, jangaiak ekartzeko asmoz. Eguraldi oso gaiztoa jarri omen zuen, baino Inaxiok etxera bueltatu nahi. Lagunek han gelditzeko aholkatu zioten, baina Inaxiok astoa eta mandoa kargatu eta Amezketarako bidea hartu zuen. Igaratzatik Arritzaga aldera zihoala, eguraldia are gehiago trakestu zen. Elurrak eta haize hotzak erasanda ahituta gelditu zen, erori eta izoztuta hil zen. 30 urte zituen.

Haren oroimenez burdinazko gurutze txiki bat dago I.A. hizkiekin, Pardelustik Arritzagarako erdi bi-dean.



Inaxio hil zen gunea. Aurrean Arritzaga

11. Kirola eta aisialdia Aralarren.

Aralarren dena ez da lana eta ezbehar kontua izan. Artzainek eta meatzariak, beren aisialdian, inguruko pelotalekuetan, jolas edo apustuak egiten zituzten. Pelota, harri-jasotzea, salto eta korri egin zaleak ziren.



Koxme Elurbe 50 kilo gainean dituela

Amezketarrak apustu zaleak izan dira, eta asko estraperloan ibiliak ziren. Horiek horrela korrika-apustuak asko izango ziren, baina garrantzitsuenak hauek:

1946ko urriaren 27an, Jose Fermin Sagastumek eta Jose Koxme Elurbek, Amezketatik Igaratzara apustua egin zuten, Akelotan barrena. Larramendiko Jose Ferminnek irabazi zuen. Egin zuen denbora, ordu bat, 46 minutu eta 38 segundo.

1948ko martxoaren 14an, Larramendiko Pello Sagastumek, estraperloko bidea egin zuen. 50 kilo bizkarrean zituela. Nafarroako Sakanako Lakuntzatik hasi, eta Igaratza eta Akelotan barrena Amezketan bukatu zuen. Egin zuen denbora 4 ordu, minutu bat eta 24 segundo.



Pello Sagastume kargarekin



Joxe Artola kargarekin Amezketara bidean

1966ko abuztuaren 14an, Ertotxezarreko (Erretore etxe zaharreko) Jose Artolak, Larramendiko Pellok egindako marka hautsi nahi izan zuen. Lakuntzako estankotik goizeko 6etan atera zen, Arritzaga eta Akelotatik pasa ondoren, Amezketako estankora ailegatu zen 3 ordu, 40 minutu eta 14 segundotan. Pelloren marka 21 minutu eta 14 segundotan jaitsi zuen. Josek 36 urte zituen eta 70 kilo.

Amezketarrak beti izan dira pelotazaleak. Artzainak eta meatzariak, aisialdian, pelotalekura joaten ziren. Pelotan jokatzeko, ez zeukaten frontisaren beharrik. Gaurko tenis pista antzeko bat prestatzen zuten ordekaren batean. Lauki zuzen bat edo H hizki moduko bat (atzea libre zuela) markatzen zuten aitzur edo makilekin. Jokalariak, erdiko marrak banatzen zituen. Jokoa tenisaren antzekoa zen, baina eskuekin jotzen zuten pelota, botea egin aurretik. Pelotak beraiek egiten zituzten, eta nahiko motelak izaten omen ziren.

Aralarren pelotaleku izeneko leku asko dira. Baina amezketarrentzat ohikoenak hauek ziren: Larrondoko Otas-kar ordekakoa; Uniko ordekakoa (Nafarroako mugaren ondoan, Uakorri eta Latosaren tartean); Aintziko ordekakoa (Pardelutsko iturri atzean, selearen ondoan); Amabirjin harrian aurrekoa eta Igaratzako Perileku ondokoa.



Uniko ordeka



Amabirjin harriko pelotalekua

Amezketarrak kargajasotzen ere zaleak izan dira beti. Eta mendian ere bazuten aukera. Apusturako harri asko omen ziren, baino aipatuena bi: Zealarko eta Aintziko harriak.



Zealarko harria

Zealarko harria, Ganbo azpian dagoen Zealar beheko ordekan dago. 110 kilo edo ia 9 arrobako pisatzen ditu. Hotz-beroak (izotza eta eguzkia) eraginda, harria zartatu egin zen eta bitan puskatu zen. Harri-jasotzaile batzuk konpondu zuten. Esaten zutenez, harria jaso zuten batzuk hauek ziren: Azintzin txikiko Dionisio Otermin, Elorraingo Domingo Artano eta Ignazio Galarza (Inazio Peitxune).



Antziko harria

Aintziko harria, Pardeluts iturri atzean dagoen Aintziko ordekan zegoen. Aintziko pelotalekuan, bertako selearen ondoan. 141 kilo edo ia 11 arroba terdiko pisua du. Asko omen ziren, bizkarrera altxatzen saiatu zirenak, baino dakigunez hauek bakarrik lortu zutenak: Elorraingo Domingo Artano; Astartetan artzaimutil zegoen Villabonako Martin Goikoetxea; eta propio hartara joandako Luis Mari Telleria lasartearra.

Zealarko harria bezala ez zartatzeko, Amezketako kulturetxera ekarri zuten Aintziko harria. Eta han dago, babesean, denek ikusteko moduan.



Martin Bengoetxea eta Joan Joxe Artola artzaina



Luis Mari Telleria

Zeinek salto handiagoa egin ere aritzen ziren jolasean eta proban. Hartarako era berezia zuten. Aurretik korrika abiatu gabe, hanka-geldian, makurtu eta salto egiten zuten. Lurrean zeuden harri luze batzuei saltarri (salta-harri) deitzen zieten. Punta batetik bestera salto egitea, izango zen apustua. Geroz jakin dugu eroritako Menhir-ak zirela. Zeltiarrez harri luzea esan nahi du: Men (harria) eta hir (luzea). Kristau aurrekoek, beren errituak egiteko egin-dako monolitoak omen dira. Perilekutik Nafarroako mugara bitartean, bat ikusi liteke zutik.




Igaratza III Menhirra

Artzainek eta meatzariak, aisialdian ez zuten kirola bakarrik egiten. Bazeuden jan edanarako tabernak ere. Eta haietan, musean eta beste karta-jolasetan saio galantak egiten zituzten.

Gure garaietara gerturatuz, Aralarren lau taberna-txabola ezagutu ditugu, Enerioko Enerio txabolan, Igaratza ondoko Beaskin txabolan, Buruntzunzineko Lukasen txabola eta Elordiko Aitziun txabola (Gaur egun Altzoko Mielena). Geronek ere, lagunekin edo familiarekin ibilbide polit bat egin ondoren, txabola haietako batean bazkaltzea zen planik hoberena.

Arritzaga bailarako interes guneak



12. Artzain ehiztariak Aralarren.

Gure arbasoak, aurrenetako artzainak izan zirenak, lurperatuta daude Aralarren. Orain dela 4.000 edo 5.000 urteko aztarnak utzi zizkiguten. Aralarren bizi ziren bitartean, inor hiltzen zenean, kobazulotan edo trikuharrietan sartzen zituzten. Haiek ziren lehenengo abeltzainen hilotiak. Ama lurrari itzuli, eta eguzki irudiekin babestuak uzten zituen. Igaratza hegoko trikuharrian 30 bat gizakien hezurak azaldu dira.



Igaratzako trikuharria

Garai haietan, animali basati batzuk, hezi edo etxekotu zituzten. Aurrenetakoa zakurra (otsotik) ehizan laguntzeko. Gero txerria (basurdetik), ardiak, behorrak eta behiak. Aziendek larreak behar zituzten, eta aukera ona zeukaten Aralarren. Orduan sortu zen Artzaintza.

Famili taldea, tribua, mendira igotzen zen. Familiako kide guztiak, bere animali guztiekin eta tresna beharrezkoek gainean zituela. Hala: babesteko eta janzteko larruak. Ezkurra txikitzeko, harrizko morteroa. Ehi-zarako eta defentsarako, lantza, geziak eta arkuak. Eta beste erremintak, aitzurra, aizkora eta abar, denak harrizkoak noski.



Kristo aurreko artzain txabola baten irudia

Gora igo orduko, lehenengo lana, eguralditik babesteko, txabola eraikitzea zen (Aurreko urtean egin bazuten ere, elurrak desegingo zuen). Egurrezko adarrekin txabola edo denda borobila (Indio amerikarrek egiten zuten moduan) edo errektangularra (kanpin-denda moduan, bi poste eta habe horizontal bat gainean). Egitura egin ondoren, larruarekin babestu eta gainean garoa eta arbekin estaltzen zuten.

Famili guztiak, umeak barne, bertako aktibitatean parte hartzen zuten. La-

rrean zeuden animaliak zaindu, basoko barazkiak bildu (ezkurak, hurrak, ...), ehizatu (basurdeak, orkatzak, untxiak, ...), larruak prestatu eta larruekin jantziak egin, ezkurak morteroekin txikitu eta ogia edo taloa egin, ura garraiatu, ... eta abar. Denentzako bazan lana.

Kontuan hartu behar da, orain ikusten ditugun Aralarko belardi eta harkaiztegiak, garai haietan, gehienak basoak zirela.

Pozik biziko ziren baino une latzak ere izango zituzten: ekaitza sortzen zenean, bere tximista eta trumoiekin; animalia basatiak (hartza, otsoa, ...) azaltzen zirenean, beren ehizako armekin, familiak eta aziendak defendatu behar zituztenean...

Udazken bukaeran, eguraldiak txarrera egiten zuenean, menditik behera egiten zuten, animali eta traste guztiak gainean zituztela. Oraingo Amezketara jaisten ziren (Larrondo, San Martin, Urzabal, ...) negua han pasatzeko, aktibitate berdina eginez, baino mendiko eguraldia baino hobearekin.

Geroago, Kristo aurretik baita ere, orain dela 2.500 bat urte, famili kopurua handitzen joan zen, baita animalien kopurua ere. Lurra ustiatzeko trebetasuna ere handitzen joan zen, ondorioz, lurzorua gehitu beharrean zeuden, eta bata bestearen arteko liskarrak ekiditeko, eta ondo kudeatzeko, seleen edo saroien sistema sortu zuten. Hala, famili bakoitzak sel edo saroi bat (82 metroko erradiokoa) zeukan izendatuta mendian; eta bestea, neguko saroi (164 metroko erradiokoa) beheko larreetan. Izendatutako saroi haiek, familiak bere animaliekin babesteko ziren. Erabiltzeko baimena zuten, baino ez jabetza. Haietatik aparte zegoena, komunala zen. Denak erabiltzeko eskubidea zuten. Ez zegoen jabetza pribaturik.

Denboran zehar, familiak asentatzen joan ziren eta neguko sele haietako asko, baserri bihurtu ziren.

Garai haietan herrixkak edo kastroak sortzen hasi ziren. Puntu estrategikoetan eraikitzen zituzten. Erreaktik urruti, altura batean lurraldea kontrolatzeko, defentsarako egurrezko hesiarekin eta beste herrixkak ikusi eta laguntza eskatzeko moduan. Halako 10 bat agertu dira Gipuzkoan. Gertukoenak Alegiko Intxurren, Anoetako Basagainen eta Beasaingo Murumendin. Susmoa da, Amezketako herrixka, gaurko San Martin inguruan kokatuta egongo zela.



Garai bateko artzain txabola Oidui inguruan

13. Artzain baserritarrak Aralarren.

Erdi Aroan, 1.400. urtean, Amezketak 21 sele edo saroi zeuzkan Aralar mendian eta Jauregiko jauntxoak 11. Bien artean 32. Familiak handitzen joan ziren eta aurrenean famili bakoitzak bere saroi bazuen ere, gerora saroi bakoitzean bi edo hiru familia eta bi edo hiru txabola sartzen ziren. Hasieran famili tartekoak izango ziren. Baserriak ere indartzen joan ziren. Anaia zaharrena baserrian gelditu ohi zen, eta beste anaiak artzain joaten ziren.

Erdi aroan txabolak harriz, egurrez eta lurrez egiten zituzten. Paretak harrizkoak. Teilatuarentzat egitura egurrezkoa. Gainean lur zotalak jartzen zizkieten. Orain 50 urtera arte, halako txabolak egiten zituzten. Hartara, udaran mendira joandakoan ez zeukaten txabolak eraikitzen aritu beharrik, teilatua txukundu eta kitto.

Orain 50 bat urtera arte txabolei ezin izaten zitzairen teilarik eman, teilak jabetzaren sinbolotzat hartzen ziren eta. Selez kanpo ere ezin zitekeen txabolarik egin, beti sele barruan. 1953an eztabaida izan zen Igaratzan seleez kanpo txabolaren bat egin nahi zutelako. Amezketako alkateak kontrako botoa eman zuen Mankomunitatean; txabolak sele barruan behar zuela argudiatuz.



Antzinako txabola Oiduin

Aralarren artzainik gehien XVIII. mendean izango zen, ziur aski. 1917an Amezketako udalak 23 sele erosi zituzten Orreagako fraideari, eta 80 urtean mantendu zituen. Seleak zirela eta Mankomunitateko Ordizi aldeko herriekin liskar dexente izan zituen Amezketak. Haiek ez zuten inoiz begi onez ikusi Amezketak Mankomunitatean hainbeste sele izatea.



Sele bakoitzean, batz bestea, bi artzain egoten omen ziren. Garai hartan, 100 bat artzain egongo ziren Arritzaga bailaran. Jo dezagun familia bakoitzean batz bestea sei kide bazirela. 600 bat lagun zeuden udaran mendian, artzaintzarekin lotuak.

Horrez gain, kontuan izan Pernandoren garaitsuan gabiltzala, beste hainbeste meatzari ibiliko ziren gora eta behera. Giro ikusgarria izango zen,

Artaldeia

uda partean, Aralarren.

Amezketan herrian baino jende gehiago biziko zen mendian. Azienda, artzain eta gazte-jende ugari mendian. Batzuk Igaratzatik egur-ikatzak karraitzen gurdiekin, besteak mandoeekin minerala eta kobrea karraitzen, meatzariak bokarde eta labeetan lanean, emakumeak errekan arropa garbitzen, umeak jolasean... Eta tartarik zutenean pelotalekuetan beren jolas, joku eta apustu.



Eta udazkenean, beti bezala, behera abiatu behar giro txarraren ihesi. Hasieran herriko larreetan gelditzen ziren artzainak. Gerora, ordea, Ameriketatik artoa ekarri zuten, eta baserrietan lur gehiago behar zuten sorrotarako, artoa ereiteko. Ondorioz, larreak gutxitzen joan ziren. Arrazoi harengatik, artzainak artaldeak eta trasteak hartu eta kosta aldera joaten hasi ziren larre bila. Batzuetan egunak eta gauak pasatzen zituzten bidean: Zarautz, Hondarribi, Hernani, Urnieta... Bizkaiko Markinara... Urepelera (Behenafarroa)...

Orain dela 50 urte, 1970ean, Enerio Aralar guztian 170 bat artzain omen zebiltzan. Arritzaga bailaran 60 inguru. Ardi asko, behor gutxi batzuk, eta behi alerik ere ez.

Artzainek udara osoa mendiko txabolan egiten zuten, bakarrik. Ardiak bildu, jetzi, gazta egin, oiloak eta txerriak zaindu, otordua prestatu... Garai hartan oso ohiko jakia omen zen sardinzaharra eta taloa. Atsedendalditan, artzainak elkarrekin hizketan, solasaldian egoten ziren. Seme-alabak ikastera joaten ziren. Emazteak, berriz, baserria eta familia zaindu eta gobernatzera. Belar garaian, artzainak baserrira jaisten ziren, segaz belarra ebaki, eta ondu ondoren, etxera karraitzeko. Umeek ere lan egiten zuten gogotik.


Artzain bakoitzak 250 ardi inguruko artaldea izaten omen zuen, eta beste behor edo abere bat edo bi, trasteak karraitzeko. Esnea, gazta eta arkumea ondo saltzen zituzten, baita artilea eta ardi zein arkume larrua ere. Orduan dirua egiten zuten. Ez zeukaten subentziorik, eta baserritik baino diru gehiago ateratzen omen zen bolada hartan. Artzainek familia aurrera ateratzeko adina ateratzen zuten.



Dionisio Goitia artzaina mendira bere artaldearekin



Arritzaga bailarako seleen plano



14. Flora eta fauna Aralarren.

Aspaldiko garai batean, Aralar arbolaz beteta zegoen. Orain Lareo ingurutik, Enerio eta Igaratza artean dagoen basoaren antzekoa izango zen Aralar guztian, seguru asko. Baso zoragarri bat, pagoz estalia eta animalia basatiz betea. Meategiek, ikazgintzak, itsasontzigintzak eta artzaintzak basoa itxuragabe ustiatu zuten. Eta, ondorioz, ia dena desagertu zen. San Martinen, Aralar larko basoari omenaldi moduan, baso erreten eskultura egin zuen Gillermo Olmok 2009an.



Enerioko basoak Oiduiraino iristen ziren orain dela 200 urte

Orain dela 208 urte, 1812an, Enerioko basoa 15 puska edo lotetan banatu zuten. Garai hartan, basoa eta egurra asko baloratzen zen. Eta Enerio Aralar larko mankomunitateko 15 herriek pentsatu zuten, herri bakoitzak bere basoa hobeto kudeatu eta ustiatuko zuela. Horregatik egin zuten banaketa. Urteak pasa ziren, tartean gerrak ere bai, eta udalei diru pila eskatzen zieten garai haietan. Herri askok basoak eta herri lurrak saldu behar izaten zituzten diru premiak asetzeko.

Dena dela, gerrak eta kudeketa oker baten ondorioz, azkeneko 200 urteetan, zuhaitzek hartzen zuten azalera, erdira jaitsita zegoen. Horren ondorioz, kudeaketa hobetzeko asmoz, Foru Aldundiak bere gain hartu



Harkaiztegia handitzen ari da mendian

zuen Enerioko basoaren kudeaketa, herri bakoitzari basoko loteen balioa ordainduz.

Aralarko lurzoru guztiak basopean sortutakoak dira, baino orain, belarra eta almitza besterik ez dago ia. Eta leku batzuetan otea eta txilarra. Okerrena, berriz, harkaizti ugari daudela, eta ugaltzen ari direla. Larreak nahi baditugu, basoak ondoan behar ditugu. Zuhaitzei esker klima umela sortzen da, eta lur zorua bizirik mantentzen da.

Lur eremu ttiki-ttiki-ttiki batzuetan zuhaitzen landaketak egin ziren, makina bat aldiz eskatu eta ederki kostata. Hasieratik izan da jende asko hori egitearen kontra, eta ez dira gehiegi errespetatu landatutako eremuak. Baso-txiki hauetako batzuk itxura antzean daude, baino beste batzuk zeharo exkax. Azkeneko 10 urteetan ez da ezer landatu. Zerbait gehiago egin beharko da, bestela laster, Aralar harkaizt-almitz hutsezko mendi gris-berdexka eta tristea bihurtuko zaigu. Oraingo larreak eta paisaiak bukatuko dira, denok kasu gehiago egiten ez badiogu.


Flora aldetik, amezketarrentzat, interes handikoak dira udaberriko xixak. Xixak biltzen gozatu egiten da, ariketa fisikoa egin eta, onena, jaterakoan ere beste gozaldia datorrela. Lehen mantzanilek ere garrantzia handia zuten. Mendikoa finagoa eta hobia izaten da. Udar biltzen zen, eta akabo urte guztiko tri-pako minak.



Udaberriko xizak

Fauna basatiari dagokionez, lau-hankakoen artean, hartza eta otsoa akabatu zirenetik, Enerioko basoetan, basurdeak eta orkatzak ibiltzen dira. Eta axeriren bat edo beste, han edo hemen oilo edo arkumeren baten bila.

Hegaztien aldetik zapelaitzak daude. Satorrak eta txitak jateko prest beti. Belek eta putreak ere bai. Neurrian, ondo datoz mendia garbitzeko. Akabatutako animaliak jan eta osasun arazoak ekiditen dituzte.



Axeria

Ikustekoa da beren jokaera. Buruntzunzin txabola ondoan ikusitakoa azalduko dizuet: Behi bat bakarrik zegoen, txekor txiki bat ondoan zuela. Txekorra jaio berria zen. Behia marru eta marru ari zen. Txekorra gaizki jaioko zen, nonbait, eta ez zen behiak nahi bezala xuxpertzen. Behiak laguntzen zion, ahal zuen bezala, baina txekorra mottel. Behiak marru. Bitartean 100 bat putre, tamaina izugarrikoak, eta beleak harkaitz gainetik begira, zain. Halako batean, behiak etsi eta alde egin zuen. Orduan, aurrena beleak gerturatu ziren txekorrarengana. Begiak eta mingaina jan zizkioten. Gero putreak joan ziren txekorrarengana, eta ziztu batean jan zuten hezurak ez beste guztia. Horregatik, amezketar batzuk, beleari mediku edo beterinario deitzen diote; beleek probatu arte putreek ez duelako jaten.



Zapelatza

Ikusgarria da ehunka putre eta belek, akabatutako animalia nola jaten duten ikustea. Ziztu batean garbitzen dute hezurretarainoko guztia. Inpresioa egiten du hegazti handi horiek guregandik gertu xamar hegatzten ikusteak. Jaten ari direla, ez gehiegi hurbildu. Errespetu handia ematen du haien jateko antsiak eta zaratak.



Putreak

Beste hegazti ikusgarri eta entzungarriak, beletxinak dira. Binaka, seinaka edo banda handitan azal daitezke nonahitik: leize-zulo, mina-zulo edo harkaitz tartetik. Oso zalapartariak dira. Zoragarria da ikustea ze abiaduratan egiten duten hegan, eta nola planeatzen duten. Baita beren txistu edo garrasia entzutea ere. Enarak egiten dutenaren antzekoa da, baino indartsuagoa, ozenagoa. Mendiko paisaiei soinu banda jartzen diete.



Beletxinak

Amuarrainak ere badaude Arritzagako errekan. Pardelutsko urak, Arritzagatik pasa ondoren, Bokarde presan sartzen dira. Eta bertan dagoen zulo batetik, lur azpitik, Zazpiturrin azaltzen dira, eta gero handik gure etxeetako iturrietara datoz. Bada, behin baino gehiagotan, amuarrain afariak egiteko aitzakiarekin, erreka erre izan dute lixiba eta bestelako produktuekin. Amuarrain gehienak akabatuz eta herriar askoren osasuna arriskuan jarritz. Kontu hori ere, askok ez du aintzat hartu izan inoiz.

Aralar animalia etxekotuz betetzen da udaran. Ardiak, behorak eta behiak larrean ibiltzen dira. Etaazienda horiek jaten dituzte, belarra, almitza eta sastrakak. Milaka urte daramatzate artzainek lan hau egiten, eta beren bizia eta familiarena aurrera ateratzen.


Paisaia ikusgarria sortzen dute aziendek mendian larrean dabiltzanean. Beren zintzarri hotsek udako soinu banda osatzen dute mendian, beletxinarekin batera. Dunba, zintzarri soinuak, lasaitasun eta erlaxamendu sentsazioa transmititzen du. Bestelako sentsazioak ere sortzen dizkigute. Behor eta zaldi talde handia trosta bizian gertutik pasatzen direnean, ileak tente jarri arazten dituzte. Baita Pardeluts inguruan, bi taldetako zaldiak borrokan hasten direnean ere. Harrigarria da nola, zutik jarri eta ze hozka eta ostiko saioak egiten dituzten.

Argi dago, beraz, Aralarko paisaia, flora, fauna, historia, istorio eta kultura, altxor zoragarria dela, ikaragarria, berebizikoa eta zaindu beharrekoa. Ezinbestekoa da guri iritsi zaigun ondarea ondorengoei uzteko konpromisoa hartzea denok. Horretarako aurrena ezagutu egin behar dugu, gero errespetatu, eta zaindu, eta galtzeko zorian dagoena berreskuratzen saiatu, beranduegi izan baino lehen. Aralartik gatoz, Aralar gara eta Aralar izango gara.

Flora eta faunaren guneak



Narcissus asturiensis



ENRIO-ARALARKO EKINTZEN EGINTAMAREN PROPOSAMENA



Egileak

2011ko
Otsailak

Zenbakia
1

2002ko Mapa orokorra, txabola gurzica
proposaturiko larre eremuak eta
babesturiko flora eta fauna


15. Nolako Aralar daukagu.

Arritzagako bailaran (Txindoki, Ganbo, Igaratza eta Nafarroako mugara arte), Amezketak eskubide eta ahalmen guztia zeukan gizaldi askotan. Ahalmen hori seleekin antolatuta zegoen, eta hauek ematen zuten ahalmena txabolak egiteko, eta ustiatzeko baimena emateko.

Bailaran Amezketa herriko eta Jauregiko jauntxoek seleak bakarrik zeuden eta ondo defenditzen zituzten beren eskubideak. Fernando Amezketarraren garaian, Beaskin selera joan ziren Amezketako alkatea eta 100 bat herritar, beren makil eta arkabuzekin, Ordizi aldeko beste herritarren aurka, seleen eskubidea defendatzeko.



Etize, Etize azpi, Buruntzunzin, Arritzaga eta Zotaleta seleak, Foru Aldundiaren katastroan.



Pardeluts, Kitzolatz, Aintzin, Egibide, Beitegi eta Igaratza seleak, Foru Aldundiaren katastroan.

Garai haietan, Amezketari Mankomunitateak ere ez zion itzalik egiten. Geroztik, 1953an, Mankomunitateko Juntak onartu zuen artzain txabolak seleetatik kanpora egitea. Amezketako alkateak kontrako botoa eman zuen. Harek ekarri zuen, ohitura zen bezala, seleek ematen zuten eskubidea eta ahalmenaren balioa kentzea. Eta, ondorioz, Amezketaren indarra, Mankomunitatea gainetik jarriaz. Eta geroztik, Mankomunitatea herrien arteko berdintasunaren bila aritu da, hala, azkenean, herri bakoitzak boto bat dauka Mankomunitateko Juntan.

Aralarko eskubideak berreskuratzeko, 1409an, Joan de Amezketari 1.400 urrezko florin ordaindu behar izan zizkioten. Haietatik % 16,67 jarri zituen Amezketak. Eta 1902an Jauregiko jauntxoek 11 sele erosi zituzten udalak, eta eskrituratuta daude. Diputazioak eta Mankomunitateko beste herriak horren aurka egon dira urte askotan. Eta eztabaida ugari izan ondoren, gai hau argitzeko asmoz, udalak abokatu bat jarri zuen. Honek, ziurtatu du **Amezketak Mankomunitateko % 16,67aren legezko jabetza duela, eta baita 11 seleena ere.** Diputazioak hala onartu behar izan zuen, eta orain seleak Gipuzkoako katastroan inskribatuta

daude. Honek adierazten du, onartzen duela Buruntzunzin elkartearen txabola Amezketakoa dela, eta sinbolikoki besterik ez bada ere, balio dute adierazteko ze garrantzia izan zuten garai batean seleek eta Amezketak.

Artzaintza da munduko lanbiderik zaharrena, eta zalantzarik gabe, giza arrazaren sostengua izan da milaka urtean. Orain, desagertzeko zorian dago Aralarren. **Artzainak** Aralar zutabe zuela, bere familiak aurrera ateratzeko gai izan dira 5.000 urtean. Eta orain ezin dute. Merkatuen irekitzeak, lehiak edo teknologiak, ileak eta larruak ezer ez balio izatea ekarri du. Arkumea eta ardiaren prezioak oso baxuak dira eta lanak dituzte esnea eta gazta ondo saltzeko. **Subentziorik gabe ezinezkoa dute familia bat aurrera ateratzea.**

Artzaintzaren errentagarritasun faltak eta industriaren aukerak, artzainak gutxitzea ekarri du. Orain dela 50 urte, Aralarren 170 artzain bazeuden orain 35, eta Amezketa 7. Artzainak beharrezkoak dira mendiko paisaia eta artzaintzaren kultura mantentzeko. Beste aldetik, abeltzainen kopurua handitu da, eta haiek eramanen dute mendira behi eta behor gehien. Aurten 130 abeltzain apuntatu dira, hauetatik, 35 artzainak. Eta beren herriak: Abaltzisketa, Altzo, Amezketa (7), Asteasu, Ataun (5), Azpeitia, Errenteria, Ezkio (2), Gaintza (2), Itsasondo, Lazkao (3), Ordizia, Orendain (3), Urnieta, Zaldibia (4) eta Zerain.

Hurrengo taulan ikusten da, urteetan zehar nola aldatu den azienda kopurua.


Urtea	Ardiak	Behorak	Behiak
1991	14.582	418	172
1995	13.982	544	280
2000	18.434	611	656
2010	17.956	693	832
2020	16.442	858	934

Nahiz eta 2002an esaten zen ardi kopuruak 15.000-18.000 tartean behar zuela, eta 800-1.000 behi eta behor, urtez urte handitzen joan da behor eta behien kopurua. Azkeneko urtean 1.792ra iritsi da. **Ustia-keta gehiegizkoa da.**

Hala dio artzain jubilatutako batek: 1970. urtearekin alderatuz, lehengo garaietan artzain gehiago zeuden, baino ardi gutxiago. **Mendia berdeagoa zen eta harkaitz gutxiago zegoen.** Lehen paisaia politagoa zen, orain grisagoa eta tristeagoa da. Lehen ez zegoen almitzik, orain asko dago. **Lehen ez zegoen behirik eta behor gutxi batzuk.** Orain behor asko, eta behiak gehiago.

Florari dagokionez, garaia da hainbeste urteetan mendiari kendu diogun **basoa berreskuratzeko.** Azkenean, gure interesa da. Basoan dago gure oxigenoa eta gure arnasa. Beste aldetik, basoa hain garrantzitsua izanik belardiak mantentzeko, bai klima euritsua lortzeko eta lurrari eusteko, azken hamar urtean ez da zuhaitzen landaketarik egin. Adituek proposatu zuten 2011an, 50 Hektarea baino gehiagoko landaketa egitea gune berrietan. Bada, **ez da ezer ere egin.** Hau ikaragarritzko axolagabekeria eta ardura eza da.

Aralarren paisaia ederrak eta mendi zoragarriak dauzkagu: Txindoki, Ganbo, Pardarri, Irumugarrieta, Aldaon, Uakorri, Balerdi, ... Azkeneko urteetan mendi zaletasuna asko igo da. Aisialdiari lotuta, bertakoak eta kanpoko ugari dira, mendira gozatzerantz etortzen direnak. Foru Aldundiak berak Aralar gipuzkoarren-tzat parke naturala eta aisialdiko gune garrantzitsuena bezala jarri du. Mendi ibilbide ugari markatu ditu. Trail edo mendian korrika egiteko zirkuituak. BTT edo mendi bizikletarako zirkuituak. Eskaladako guneak. Txindokiko itzala abentura parkea eta abar. Garrantzi handiko kirol probek ere Aralar dute ardatz: 100 millak, Txirrita mendi ibilaldia, 14 orduko mendi martxa eta bestelako apostuak; Txindokira igoerak, esate



baterako. Foru Aldundiak **Aralar parke naturala, landa turismoaren gune estrategiko** moduan jarria dauka. Eta Larraitz puntu garrantzitsuenak.



Larraitzko panelak

Eusko Jaurlaritzak 1994an, Aralar Parke Naturala sortu zuenenean, Mankomunitatearen gainetik jarri zuen Foru Aldundia. **Parke guztiaren ardura eta kudeaketa bere gain hartu zituen Diputazioak. Ondorenen, Patronatua jarri zuten hauek kontrolatzeko, eta kontsultore moduan.** Bertan daude ordezkaturak, gizarte sektoreak, ekologistak, sindikatuak, administrazio ezberdinak, diputazioa, udalak, ... Bere funtzio da **Parkea** sortu zenean jarritako helburuak betetzeko bidean jarraitzea. Eta hauek dira helburuak:



Behi eta behor ugari dago

- 1.- Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza suspertzea.
- 2.- Ondare naturala babestea.
- 3.- Baliabideak arrazoiz erabiltzea.
- 4.- Balioen ezagutza-gozamena zabaltzea.
- 5.- Ikerkuntza ahalbidetzea.

Mankomunitateak baliabide oso murriztak ditu. 2019ko ekarpenak hauek izan ziren: udalek 26.113€ (Amezketak 1.373€) eta abeltzainek 36.409€ (1,1€ ardiko eta 11€ behi edo behor buruko). Sarrera hauekin ezinezkoa da Mankomunitateko guarda eta gastu arruntak ordaintzea, 105.750€. **Diputazioaren laguntza beharrezkoa da** gastu hauentzat, 36.871€. Eta **hitzarmenen bidez beste 200.000 € jartzen ditu, mendi guztian, bere ardura diren gaietarako:** txaboletan ura eta argia jartzeko, txabolak berritzeko eta azkeneko urteetan pista berriak egiteko. Hauekin iskanbila handiak piztu dira. Enerio aldean **eraiki diren bi pisten legezkotasuna zalantzakoa da.** Kontua epaitegietan dago. Eta beste proiektuan zegoen **Ariñate eta Igaratza arteko pista,** Zotaleta, Pardeluts eta Latosako adarrekin. Hori ez dute onartu ingurumen inaktuaren adierazpenean.



Behiak harkaitz eremuko larreetan

16. Nolako Aralar utzi nahi dugu?

Parke Naturala sortu zenean jarritako helburuak aurrera ateratzeko epe luzeko estrategia baten beharra dago: lurzoruari eusteko, basoa hazteko, artzainek luzaroan irauteko, ondare naturala babesteko, ondare kulturala ezagutu eta zabaltzeko eta ikerkuntza ahalbidetzeko.

Horiek horrela, ez litzateke txarra izango eztabaida eta parte-hartze prozesu zabal bat abiatzea, ahalik eta adostasun zabalenera iristeko.

Eta nolako Aralar ikusi nahiko nukeen esatera aurreratuko naiz, egin dudana **amets** batekin.

Aurrena, Aralarrekin izan dudana harremana azaldu nahi dut. Orain 62 urte joan nintzen aurreneko aldiz Buruntzunzingo minetako txabolara. Bost urte nituen. Osaba Martzelino meatzaria zen, eta harekin eta gurasoekin egun batzuetako oporraldia pasatzera joan ginen hiru anaiak. Oraindik gogoan dut nola ibiltzen ginen gordeketa jolasean txabola aurreko belazean, eta, behin, nola erori nintzen osin tortoka handi baten gainera. Hura zen erresumina hura!

Gogoratzen dut, osinena bezain argi, nola joaten ginen Lukas artzainaren txabolara, eta nola hark Kas naranja eta azeitunak ematen zizkigun.

Eta geroztik, askotan eta askotan joan ginen minetara. Baita gure seme-alabekin ere. Senideek gure seme-alaba eta ilobekin oporraldi bikainak pasa izan ditugu Buruntzunzinen. Mendian barrena ibili, paisaia eta animaliak ikusiz gozatu eta, gero, Lukas artzainak egindako paella ederra janez gozatzen genuen.

Oroitzapen hauekin hasi naiz ametsetan, eta orain, Aralar nola ikusi dudana esango dizuet:

1. - Lehenengo eginbeharra Aralarri kendu dizkiogun zuhaitzak bueltatzea da. Hainbeste gizalditan egur asko, ikaragarri, eman digute Aralarko basoek. Bada garaia aleka-aleka kendu dioguna itzultzen hasteko. Zuhaitzak landatu behar dira, ahalik eta azkarren. Aurrena lurrez urritzen ari diren harkaiztegi eta parajeetan, eta luiziak izateko arriskua dagoen aldapetan. 2011. urtean adituek proposatu zituzten 50 Hektareak landatuta ikusi nahi nituzke.

2.- Orain dela 50 urte bezain mendi berdea ikusi nahi nuke, harkaiztegi gutxiagorekin. Orduan bezala ikusi nahi ditut artzainak, ardiekin, laguntzeko behor, mando, asto edo abereren batzuk; baina ez mila behorzaldi eta mila behi-zezen. Baso berriak kontuan hartu eta gelditzen den larrea izan dadila ardi eta behor kopurua mugatuko duena, gehiegizko ustiaketarik gabe.

3.- Artzainak gutxitzen ari dira, eta aurki dira txabolak soberan. Hasieran artzain-turismoa egiteko txabola bana jarriko nuke Zotaletan eta Latosan. Familia bat edo birentzat aste bat edo batzuetarako alokatzeko moduan. Txabolako ardura duen artzainak harrera egingo lioke jendeari. Eta, nahi bada, mendi ibilaldiak, artzain bazkari bereziak, talo afariak, gazta egiten erakutsi... eta horrelako ekintzak eskaini ditzake. Elordin manten dezatela jan eta edan lekua. Eta Ariñatetik aurrera auto-biderik izango ez denez, han artzainen beharretarako biltegi bat. Gauzak uzteko, jasotzeko, behor edo abereak aldi baterako edukitze-ko lekua eta abar.



Jentilharri Trikuharria gazteei erakusten

4.- Artzaina izan dadila Aralarko zaindari eta lorezain (jardinero). Bere larre-tokiko belarra ondo moztu eta garbi mantentzeko ardura hartu dezala. Bere eremuan leudekeen birlandatutako zuhaitzak errespetatu, babestu eta itxiturak zaindu ditzala. Artzainak, Mankomunitatearen txaboletan egon nahi badu, araudia onartu eta errespetatu dezala. Autoa txabolara iritsi ezinak sortutako zailtasunak, behorrek karretoak egin beharrek sortutako nekeak turismotik irabazitakoarekin eta Foru Aldundiaren laguntzarekin arindu ditzake. Aralarren zaintzaile izateko soldata osagarria, nolabait esateko.

5.- Eta, ondare naturala errespetatu, zaindu eta babestu ondoren, zaindu eta zabal dezagun kultur ondarea:

a) Pernandoren garaiko minetan, Arritzagan, aterpe bat egin behar litzateke. Garai hartako meatzarien bizitokiaren edo-eta labeen tailerraren antzeko eraikin bat izan daiteke. Eta panel batzuetan, garai hartako lanbidea, bizi izatea eta historia jarriko dira jendearen jakingarri.

b) Aurrekoaren antzeko zerbaitei Histori Aurreko minen gunean ere.

c) Perileku selean Artzaintzari omenaldia: Histori aurreko artzain txabola bat eraiki beharko litzateke, eta Erdi Aroko beste bat (Oiduin dagoenaren antzekoa). Erdi Arokoa aterpetxe bezala erabili daiteke. Eta kanpoan, paneletan, garai hartako historia ikasgai.

d) Perileku ondoan dagoen trikuharri bat berreskuratu behar litzateke. Bere garaian zen bezalatsu jarri, eta panel batzuetan adierazi orduko usadioak eta errituak nolakoak ziren.

e) Ondoko sele guztietan, borobilean itxiturak egin, pagoak aldatu eta paneletan seleen berri eman. Seleen usadioak zenbaterainoko garrantzia zuen, nolakoak ziren, neurriak, nola banatzen eta izendatzen ziren... Eta, bide batez, seleetako baso txiki horiek basoari egindako omenaldi bihurtu daitezke.

f) Aralarren garrantzia historiko edo bestelako interes bereziren bat duten lekuetan poste motz batzuk jarri. Trikuharrietan dauden antzekoak. Eta QR edo GPSaren bidez, hango historia eta istorioak mobiletan azaltzeko moduan. Halakoa jarri daitezke: Pelotalekuan, meategi gunetan, seleetan, makiak eta estraperloko protagonistak ibili ziren tokietan, elurzuloetan ...

g) Buruntzunzin ondoko aterpean, garai bateko bolbora biltegian panel batzuk jarri daitezke, hango interes geologikoaren berri emateko.

Gustatuko litzaiake Buruntzunzin elkarteak ondare kulturala babesteko eta mendizaleen aterpea zaintzeko ardurak hartzea, eta hauen bultzatzailea eta zaintzailea izatea. Bere gain hartzea ardura hauek:

1. Kultur ondarea ezagutu, ikasi, irakatsi eta babesteko ardura.

2. Mendizaleen aterpe izatea, eta beste aterpeekin harremanetan egotea.

3. Mendi ibilaldiak eta bestelako ekintzak antolatzea. (Ibilaldi eta kirol probaren batzuk barne)

Amets hau nire ametsa bakarrik da, eta badakit airean dagoela. Baina beste baten ametsarekin, eta gureak beste bazuenekin bat egingo balute, ametsak egi bihurtzen hasi gaitezke. Eta, pixkanaka-pixkanaka, hankak lurrean ditugula, baina amets egiteari utzi gabe, gero eta gertuago eta uste baino eskuragarriago eduki dezakegu guk nahi dugun Aralar, gu garen Aralar !!!

Amestea librea da. Eta asko betetzea posiblea.

Ez dezagun utzi hurrengo belaunaldia ondare naturala eta kulturalaren altxor hau gabe.



17. Paisaia eta kultura ibilbidea.

Arritzaga bailaran dagoen paisaia, ondare naturala eta kulturala ezagutu eta gozatzeko aukerako ibilbidea proposatzen dizuet. Beatzatik Igaratzara joan eta Nafarroa aldeko mugatik edo Txindoki aldetik jaitsi.

Beatza edo liburuetan Beratzaga (1) izeneko lekutik aterako gara, zubitik Arritzaga erreka gurutzatu ondoren, Akelo aldera hartuko dugu. Gora goazen heinean, ikusgarria da **Arritzaga erreka**, paisaia eder bat azaltzen da: Amezketa erreka harriak goroldioarekin estalita eta ur garbiaren karraio. Udar, gaine urak desagertu egiten dira, eta lur azpitik Amezketako iturrietara jaisten dira.



Arritzaga erreka



Goroldio ugari erreka ondoan

(1) Beatza izena ez da toponimikoa, eta ez dakit den Beratzaga, baino kontuan hartuta inguru horretan '**Labetako ordeka**' izeneko gunea dagoela, bertan mineralen arrastoak daudela, eta garai batean Jauregiko jauntxoena zela, ez litzateke harritzekoa bere benetako izena '**Meatza**' izatea. Aztertu beharreko kontua da.



Errekatik urrutiratzen goazen heinean, ezkerrera haitz zorrotz bat ikusiko dugu. **Altxorrotxa edo Haitztxorrotxa** izenekoa. Bertan, gehienetan ikusten dira zapelatzak edo putreak. Garai batean, bertakoek ikurri-na jartzen zuten, eta berehala etortzen ziren Guardia Zibilak hura kentzera, eta bai komeria ederrak egin ere kendu ezinik.

Eta hortik pixkana gora eginez, Anduitzko bordara iritsiko gara. Amezketan, gehienok ‘**Makien txabola**’ esaten genion, eta diogu. Gogoan hartu hemen bertan Guardia Zibilak bi maki hil zituela eta beste bat zauritu, faxismoaren aurka eta askatasunaren alde egiteagatik. 1946a zen.





Akelotako bidea

Akeloko bihurguneetara iritsi aurretik, bidea **galtzada bide** moduan landua dago. Meatzariek XVIII. mendean egina da, bertatik mandoekin igo eta jaisteko. Handik ederki ikusten da zenbaterainoko zuloa egin duen erreka, milaka urtean. Urak harkaitza desgiten du urteetan zehar, horrek eman dio **‘V’ itxura** sakanari.



Akelok eta Arritzagako sakana Ondarreko langatik



Ondarreko ur-jauzia

Akeloko bihurguneetan goazela, beste aldean, ikusgai dago, **Ondarreko ur-jauzia**. Ikusgarria da euri askoren, edo elurte baten ondorioz, Uzkuiti aldeko urak nola jaisten diren 200 metroko saltoa eginez.



Harkaitzean koral fosilak

Bidean goazela **fosilak** ere topa ditzakegu, eta seguru harkaitzean koral aztarnak ere ikusiko ditugula (errudistak) arretaz begiratu gero. Garai batean, leku hauek itsaso tropikal baten azpian zeudela gogora arazten digute aztarna horiek.

Aurrera goazela ikusi ditzakegu, ezkerretan, **kableak eta baldeak zintzilik**. Mine-tako bidean goazela esan nahi du horrek. Laster ikusiko dugu **errekan ur jauzi bat**. Ur asko dagoenean dotore egoten da beneran.



Meategiko aztarnak Akelotako bidean



Artubi azpiko bainarak

Handik aurrera egin eta, errekan beste une ikusgarri bat daukagu, '**bainarak**' deitzen diogu. Urak, urte pilan zehar, egin dituen zuloak dira. Udaran bertan bainua hartzeko gogoa ematen du, baino hotza aguantatzeko kemena behar da.

Bainarak pasa ondoren Aralarren barrengo ateetara sartzen gara. Paisai aldaketa zoragarri baten aurrean gaude.



Bainarak



Morrenak. Glaziarraren arrastoak

Etorri gara Arritzagako erreka egin duen ‘V’ irudiko sakan estu batetik eta sartu gara **Arritzaga glaziarrak milaka urteetan egin zuen ‘U’ irudiko bailara** zabal batera. Gure aurrean, ezkerretan, ikus ditza-kegu **Morrenak**, izotz eta elurrarekin nahasian, Amabirjin harri ingurutik behera ekarri zituen harri eta lurrak. Adituek diote, gauden lekuan, izotz mihiak ehun metroko altuera izan zezakeela. Arrastoak ikusi eta datuak ezagututa, irudikatzen saiatzen bagara, izugarria izan behar zuen.



Arritzaga sakanetik Arritzaga bailara.
Aurrean mineralen biltegia eta garbilkua



XX. mendeko meategien museo txikia

Erreka ondotik jarraituz, Buruntzunzin **kobre meategian egindako azken saiakerako aztarnak** ikusiko ditugu. XX. mendekoak. Museo txiki bat sortu da, garai hartako eta bertako tresnak, makinak eta erremintekin. Paneletan adierazita dago nolako meategia zen, eta lana nola egiten zuten. Makinen txabolaren barruan, mendizaleentzako aterpea dago.



Txabola barruan XX. mendeko aztarnak



Txabolatik Santa Rosa mina zuloa. Gune horri Olaberria deitzen zitzaion XVIII. mendean

Mina barruko sentsazioak ezagutu nahi izan ezkero, aurrera jarraitu errekarari segituaz, eta hormigoizko txabolaren aurrean (garai batean meatzarien egoitza), han dago Santa Rosa izeneko mina zuloa. Linterna edo mobil bat hartu, barrura sartu, eta meatzarien azalean jarri, lur azpian ibiltzeko sentsazioak ezagutzeko. Ondoren, aurrera segitu ordez, 40 metro atzera egin eta Buruntzunzin aldera igo.



Santa Rosa barrutik



Santa Rosa mina zuloa

Buruntzunzin elkartearen egoitzaren aurrean jartzen bagara, gauza asko dauzkagu ikusteko.

Meatze munduan segituaz, aurrean daukagu **XX. mendean meatzariak bizi ziren lekua**. Gaur egun Buruntzunzin elkartearen egoitza da. Eskuin aldera begiratzen badugu, bolborina edo dinamitaren txabola txikia ikusiko dugu, gaur mendizaleen aterpea. Uakorri aldeko malkarretan, berriz, urte pila zehar egindako minerala lortzeko saioen arrasto ugari ikus ditzakegu.



Museotik Buruntzunzin igoera



XX. mendeko meatzarien egoitza eta mendi malkarrean meategien aztarna ugari

Elkartearen aurrean, **Buruntzunzin saroi edo selearen hauts-harria dago, mugarria**. Artzaintza munduari lotuta dago. Larreak kudeatzeko seleak baliatzen zituzten. Eta bertan egoteko baimena zuenak, bera eta bere artaldea babesteko erabiltzen zuen selea. Mugarrian zentroa zuela, 82 metroko erradioa zuen azaleran seleak. Gertu dago Buruntzunzin artzain txabola.



Buruntzunzin artzain txabolatik Arritzaga aldera



Buruntzuzin Ariñatetik .
Glaziarrek batuko zituen garai
batean

Kontuan hartu, garai bateko glaziarrek zapaldu zuen une berean gaudela, eta bere **morrenak zapaltzen** ditugula. Uzkuiti aldera begiratzen badugu, ikus ditzakegu harkaitzen forma bereziak. Hauek adierazten digute **nola sortu zen Aralar**. Itsasoko ur azpiko kapa horizontalak bihurritu ziren, Europar eta Iberiar plataformek talka egin eta mendiak sortuz.



Harkaitzak bihurrituta



Ganbo eta Uzkuiti azpiko harkaitzak



Uakorri azpia. Kristau aurreko meategiaren gunea

Artzain txabolen ondotik Arri-tzaga aldeko bidea hartuko dugu. Harkaitz baten ondoan, pasaeran, atzera begiratzen badugu, torrefakzioa erabiliz landua dagoela ikusiko dugu. Suaren eraginez kare-harria kare bihurtzen zen, eta pikatuz erraz kentzen zitzaion minerala. **Kristautasunaren aurreko meategiaren gunera** ailegatu garen seinalea da.

Hortik 30 bat metro gora igo-tzen bagara, gune berezi batera iritsiko gara. Goazen eran, garai bateko terraza edo baratza antzeko uneetatik, harkaitz azpi batera ailegatu gara. Han malakita mineralaren eta torrefakzioaren arrastoak daude. Aurkitu dituzten aztarnak orain dela 3.500 urteko dira eta, dirudie-nez, harkaitz minerala ustiatu ondoren, bertan harkaitzen babesean bizi izan ziren. Uakorriko malda horretan, garai haietako beste aztarna asko bilatu dituzte, bai lur gainean eta bai lur azpian.



Kristau aurreko meategia eta bizi lekua



Arritzagatik behera bidea eta erreka

Aurrera jarraituz, kamio ondoan ikusiko dugu Bokarte iturria. Aurrerago, meatzako 'Bokardea' zegoelako jarri zioten izen hori. XVIII. mendeko meategira iritsi gara, **Pernando Amezketarraren garaiko meategia**. Eskuin aldean, bokardeak txikitutako mineral arrastoak ikusiko ditugu. Aurrerago, ezkerretan, mendizaleen aterpea dago botikin eta guzti. Buruntzunzin elkarteak kudeatzen du aterpe-botikin hori.

Leku horretan bainu eder bat har daiteke eguraldiak lagunduz gero.



Astarte txabola berria, azpian Bokarte iturria eta eskuinean aztarnak



Bokarte presan gazteak gozatzen



Bokarte presatik Astarte txabola berria



Arritzagako txabolak eta aztarnak

Arritzaga artzain txabolara iritsi gara. Ondoan eskoria ugari dago (labeetatik ateratzen zen baliorik gabeko materiala). Kontuan izan 72 urtean aritu zirela lanean inguru horretan. Txabolen eskuin aldera hartu eta, erreka ondoan, iturri bat ikusiko dugu. Iturriaren ezkerretara Arritzaga selearen hauts-harria (mugarria) dago. Eta haren atzean, bere garaian, eliza izan zen lekua.



Planoan ikusten da non zegoen selea eta eliza

Zubitik erreka gurutzatu, eta labeetara zihoan ur kanaletik Pardeluts aldera hartuko dugu. Leku horretan barrena Arritzagako herrixkaren aztarnak ikusten dira. Paraje zoragarri horretan, erreka ondoan, 300 bat meatzari bizi izan ziren. Eliza, okindegia eta bi taberna zeuzkaten. Seguru asko, Pernandok botako zituen bertsoren batzuk taberna eta inguru hauetan.



Arritzagako iturria



Pardelutsko iturria Zotaletatik

Aurrerago, 300 bat metrora, azkeneko labeen aztarnak nabarmentzen dira. Handik Pardelutsera, erdi bidean, harri baten gainean burdinazko gurutze bat dago. Horrek gogora arazten dizkigu **Franco faxixtaren garaiko errepresioa eta gosetea**. Jateko estraperloan ibili beharra zeukaten, eta horrek ekarri zion heriotza Aintziarbeko Iñaxiori. 1949an izoztuta hil zen, Uharte-Arakildik abereak zamatuta zetorrela.



Azkeneko labeen aztarnak



Pardeluts bidea Inaxioren gurutzetik



Arritzaga erreken hasiera eta Aintziko ordeka

Pardelutsko iturrira gerturatu gara. Hemendik hasten da Arritzaga erreka. Iturriaren atzeko aldean, 300 bat metrora, **Aintziko ordeka** dago. Han bere izeneko selea dago. Ondoan pelotalekua, eta orain dela 10 urte arte, Aintziko proba harria. Artzain eta meatzariek jolas eta apustuak egiteko gustuko lekua izango zuten Aintzi. Handik Pardeluts txabola aldera begiratuz Ganbo eta Zikolatz seleak ikusten dira.



Aintziko selea



Aintziko ordeka aurrean Ganbo eta parean Kitzolatz ordeka



Zotaletako txabolak

Beste aldera jiratzen bagara, Ganbo aldera, hango selectan Pardeluts eta Zotaleta artzain txabolak ikus ditzakegu. Pardeluts txabolatik Igaratza aldera, 50 bat metrora, **Elurzulo edo "Nevera"** dago. Handik elurra eramaten zuten Ordiziara, Tolosara eta Donostiara 1609tik 1882ra arte. Izotza egiteko makinak sortu zirenean desagertu zen jarduera hura.



Elurzuloa



Pardelutsko txabolak



Pardeluts saroia Amabirjin harritik

Amabirjin harri aldera goazela, 50 metro baino lehen, beste pelotaleku bat dago. Haren gainetik pasako gara Amabirjin harrira iristeko. Kondairak dioenez, **Amabirjinak harri horren gainean jarri zuen hanka, Arantzazura joan aurretik** (Hanka-arrasto antzekoa dago harri gainean). Handik behera dauden harriak, eta Amabirjin harria bera ere bai, agian, glaziarreko elurrak mugitutakoak izango dira.



Igaratzako Arratea Beletatik

Igaratza aldera goazela, harkaitz ugari dago, bidea estutuz doa eta **Igaratzako Arratera** (Harratea, harri atea) iritsi garen seinalea da. Eta benetako atea da. Handik beste paisaia zoragarri eta ezberdin batera iritsiko gara. Glaziar bailaratik zelai zabal eta larre berdeak dauden Igaratzako lurretara pasako gara.



Igaratza eta Enirioko basoak



Beleta aurrean Perileku

Aurrerago goazela, beleta edo haize-orratz bat dago. Herrien eta mendien norabideak markatzen ditu. Aurreko harkaitzean **Beitegi edo Perileku** selea dago. Aurreneko izena behiak egoten zirelako izango da, eta bigarrena artzainak han feria egiten zutelako. Badakigu 1923ra arte egiten zirela han feriak. Handik aurreraxeago, ermita aldera 100 bat metrora, Igaratza selea dago. Eta bien artean **Igaratza Iparra eta Igaratza Hegoa trikuharriak**. Azkeneko horretan 30 bat giza hezur aurkitu zituzten. Orain dela 4.000 urte inguruko gure arbasoak eta aurreneko artzainak ziren.



Igaratzako Arabea Trikuharriatik

Igaratza selea Perileku seletik

Eta ondare kulturalari buruzko kontu batzuk ezagutu ondoren, ondare naturala ezagutzeko bi aukera proposatuko dizkizuet: bat Arritzaga aldeko tontorretatik pasaz Nafarroako muga aldera jotzea, eta bestea Txindoki aldera.



Aitzgorri, Pardarri eta Ganbo Irumugarrietatik



Araitz bailara Irumugarrietatik

Nafarroa aldeko mugatik, mendi dotoreak eta paisaia zoragarriak ikusiz jaitsi gaitezke Larrondora: Igaratza, Hirimugarrieta, Aldaon, Beoain, Uakorri, Artubi eta/edo Balerdi tik pasa eta gero.



Txindokiren tontorra Irumugarrietatik






Buruntzunzi eta Uakorri Pardarritik



Txindoki aldera joz gero, Pardarri, Ganbo, Uzkuiti eta/edo Txindokira joan gaitezke. Handik Arritzaga bailarara jaitsi gaitezke. Edo, Txindokitik behera Marizulo bisitatu eta handik etxeratu gaitezke.



Txindoki Ganbotik



Txindoki eta Elordi Uzkuititik



Bibliografia.

Otermin, Jose Maria (2005) *Amezketak bide luze bezain malkarrak*

Hilario Orus, Asier (2020) *Geodiversidad La memoria oculta de la tierra vasca*

Moraza Barea, Alfredo (2009) *600 Aniversario de la Mancomunidad Enirio-Aralar*

Agirre Garcia, J. ; Alvarez Sostoa, D. ; Lamikiz Gorostiaga, X. ; Moraza Barea A. ; Mujika Alustiza, J.A. (2006) *Kultur bideak Aralarren*.

Rementria Arruza, Daniel; Quintana, Roberto (2010) *Los Seles de Urdaibai. Paisaje, cultura y etnografía*

San Millan, Juan Alberto (2020) *Los Seles en Bizkaia*

Barandiaran, Jose Miguel (1988) *Euskal Herriko Mitoak*

Arrinda Albisu, Anastasio(1965) *Religion Prehistorica de los vascos*

Ugarte Placer, Felix (2010) *La religión en Euskal Herria*

Aguirre, Antxon (1996) *El rito funerario en Euskal Herria*

Sorazu, Emeterio (1980) *Antropologia y Religion en el Pueblo Vasco*

Elosegui Irazusta, Jesus (1974) *Las minas de cobre de Aralar (1732-1804)*

Tellereia Sarriegi, Etor (2009) *Prospecciones sistemáticas en el valle minero de Arritzaga*

Ugalde, Txomin (2009) *Estudio de la minería en la Sierra de Aralar*

Studer, Giorgio; Ugalde, Txomin (2010) *Estudio de la minería prehistórica en la sierra de Aralar*

Studer, Giorgio (2010) *Reportaje sobre las minas de cobre de Aralar (DVD)*

Urteaga, Mertxe; Ugalde, Txomin; Studer, Giorgio (2010) *Mineria prehistórica de cobre en Arritzaga, Aralar*

Ugalde, Txomin (2011) *Reportaje. Las minas de cobre de Aralar*

Ugalde, Txomin (2016-2017-2019) *Memoria Excavación Arqueológica Arritzaga 37, Aralar*

Ansa Munduate, Juan Mari (2010) *Las Malloas de Aralar*

Etxeberria, Paco; Agirre, Juanxo; Leizaola, Fermin; Mujika, Joxean; Antigüedad, Iñaki; Aranburu, Arantxa...(2018) *Aralar, mundua leku den lurra (bideoa)*





Amezketako gazteek Arritzaga bailarako ondare naturala eta kulturala ezagutu eta gozatzeko pentsatuta dago. Bertan dauzkagun hainbat gauza miragarri azaltzen saiatu naiz liburuxka honetan. Gure kultura eta naturarekiko maitasun loturak estutzen joatea du helburu. Bixente Gorostidin bertsoak dion bezala:

**Aralarpeko gure
txoko txiki txukun
Amezketan maittea
Amezketan kuttun.
Aurrekoen kontuak
ikasi ditzagun
historia egiten
jarraitu dezagun.**